



Usurbilgo Udala



## 2014KO OTSAILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Mertxe Aizpurua Arzallus A.

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaca A.  
Josu Portu Alzaga J.  
Jone Urdampilleta Urdampilleta A.  
Jose María Rivadeneyra Sicilia J.  
Enara Arbizu Irurtia A.  
Iñaki Ugarte Aguirre J.  
Eustakio Arrojeria Eguzkiza J.  
Jose Ramon Furundarena Salsamendi J.  
Luismari Ormaetxea Santsiñena J.  
Miren Josune Urquia Carrera A.  
Josune Urkola Larrarte A.  
Ricardo Crespo Rubio J.

**Idazkaria:** Nagore Sarasola Otermin A.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2014ko otsailaren 25ean, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Mertxe Aizpurua Arzallus izan da Batzarburua.

### **1.- JOSUNE URKOLA LARRARTE ANDREAK ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.**

Alkateak adierazi du EAJ alderdiko Andoni Atxegak zinegotzi kargua utzi duela eta bere ordezkari Josune Urkolak hartuko duela kargua.

Idazkariak esan du Hauteskunde Batzordeak Josune Urkolaren kredentziala luzatu diola Udalari. Jarraian, Nortasun Agiri Nazionala eskatu dio Josuneri eta kredentzialarekin parekatu du. Bestalde, beharrezkoak diren, batetik, Bateriaezintasun Arrazoen eta Jardueren Aitorpena eta, bestetik, Ondare Ondasunen Aitorpena espedientean aurkitzen direla adierazi du. Azkenik gaineratu du indarrean dagoen legediak agintzen duela Konstituzioari zintzuz egin beharko zaiola, eta ezinbesteko



Usurbilgo Udala



baldintza dela zinegotzi kargua hartzeko. Hau horrela, zinegotziaren izen-abizenak irakurri ditu eta zinegotziak zin egin du.

Josune Urkola Larrarte: “Bai, legeak hala behartuta, hitz ematen dut”.

Hori horrela, tramiteak beterik idazkariak adierazi du Josune Urkolak zinegotzi kargua hartu duela eta kredentziala luzatu dio.

## **2.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2014/01/28KO OHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2014ko urtarrilaren 28ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

## **3.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2014KO URTARRILAREN 18TIK OTSAILAREN 14RA (2014/0059 – 2014/0132).**

Alkatetzak 2014ko urtarrilaren 18tik 2014ko otsailaren 14ra bitartean (2014/0059-2014/0132) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **4.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO S-4 (TXAGAÑETA) SEKTOREKO EZAUGARRI FITXAREN ALDAKETA (10 ALDAKETA) PUNTUALAREN HASIERAKO ONESPENERAKO DOKUMENTUARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK ERANTZUTEA ETA BEHIN BEHINGO ONESPENA EMATEA.**

Alkateak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Adierazi du gaurko erabakiarekin tramite honi bukaera emango zaiola. Batzordean azalpenak eman zituen arren gogorarazi du eremu honetarako hasierako fitxak industri zonalde mixto bat aurreikusten zuela eta sektorearen azalera 14.115 m<sup>2</sup>-koa zela. Aldiz, gaur planteatzen den aldaketa honekin industria gunea murriztu egiten dela esan du. Halaber, ikusi dela esan du urteetan bi jabeen artean zegoen desadostasuna zela eta ezin izan zela eremu hori garatu.

Lurzati honen garapena geldituta ez egoteko, Udal honek egin duena dela esan du lurzatiaren jabeen interesak alden neurrian errespetatuz irtenbide bat eman. Hori horrela, proposatzen dena da sektorearen reordenazio bat non industrial den lursaila murriztu egiten den, beste guztia nekazaritzara bideratzen den eta bertan dagoen karobia mantendu eta babestu egiten den. Era berean, aldameneko eraikinetarako sarbidea hobetzea lortzen duela azpimarratu du, horrela, Aginagarentzat hirigintza hobekuntza bat lortzen delarik.

Bi alegazio aurkeztu zirela adierazi du eta hauek batzordean ikusi zirela.



Usurbilgo Udala

Jokin Atxegak aurkeztutako alegazioak sektorearen mugaketari egiten diola erreferentzia adierazi du. Urbanizazio lanak egin ahal izateko bestearen eremuan sartu beharko luketela eta horrek arazoak sortu ditzakeela alegatzen omen dute. Alkateak esan du gai honen inguruan udal aholkulari juridikoak eta arkitektoak egin dituzten txostenetan esaten dutela ez daukala zertan arazorik sortu behar, legeak aurreikusten omen ditu horrelako egoerak eta instrumentu legalak ba omen daude hori egin ahal izateko. Bestalde, barrutik egitea ere posible izango omen lukete. Hau horrela, puntu hau ez onartzea proposatzen dela zehaztu du.

Aprobetxamenduari dagokionez, oin-okupazioaren gaiak aldaketa dokumentuak barneratzen duen antolamenduak ezarritako estandareen betetzea justifikatzen duela eta alegazioak esaten duela dio nahitanahiez oin-planta errespetatu beharrak arazoak ekarri ditzazkeela. Hor aholkulari juridikoak esaten duela dio aprobetxamendu honetan legeak esaten duena mantentzen dela eta behe-solairuan betetzen dela, bermatzeko derrigorrezko lerrokadura bat ezarri egin delarik.

Alegazioan metrotan malgutasun bat eskatzen zutela zehaztu du. Honen aurrean, arkitektoak erantzuten die malgutasun hori bigarren solairuan edo goiko solairuan aplikatu daitekeela. Puntu hau ere ez onartzea proposatzen dela zehaztu du.

Aparkalekuei dagokionez alegatzen dutena da planteatzen diren aparkalekuek suteen babeserako erregelamenduak ezartzen duenarekin bat ez datozela eta ibilgailuen maniobrak egiteko oztopoak sortu daitezkeela zenbait kasutan. Puntu honi arkitektoak erantzuten diona da markatu diren aparkalekuak orientagarriak direla eta, beraz, horrela dagoela ikusten bada aldatu daitezkeela. Baina arazo hau ekidite aldera eta alegazioa partzialki ontzat hartuta, proposamen berri bat zehazten duela adierazi du, hain zuzen ere, eraikinaren behe solairuan mendebaldeko altxaera 2,5 metro atzeratzea.

Alegazioaren hurrengo puntuak eraikuntzaren baldintzei erreferentzia egiten diela esan du, lerrokadurei eta sestrei, hain zuzen ere, eta aipatu du lerrokadurei dagokienez, lehen aipatutako eraikinaren atzeratze horrekin erantzun bat ematen zaiola. Sestrei dagokionez, proposamen zehatz bat egiten duela esan du eta hau onartzea proposatzen dela adierazi du. Hala ere, arkitektoak zehazten duela dio behe solairuan alboko lurzoru ez urbanizagarriaren pareko sestra mantendu beharko dela eta lehen solairuan, aldiz, errepideko errotondak izango duen sestraren parekoa izan beharko duela. Beraz, baldintza horiekin onartzea proposatzen dela adierazi du.

Jokin Atxegak aurkeztutako alegazioaren bosgarren eta azken puntuak erabileri erreferentzia egiten diola esan du eta eskatzen duena dela eraikin industrial hau jarduera bakarrera ez finkatzea eta beste erabilera batzuk emateko aukera izateko beste jardueretan sailkatzea. Kasu honetan, bai aholkulari juridikoak bai arkitektoak puntu hau ez onartzea proposatzen dutela zehaztu du.

Bigarren alegazioa Miren Maioz eta beste hamaika pertsonak batera aukeztutakoa dela adierazi du eta bi puntu dituela. Puntu bat erabilera industrialaren ingurukoa da eta funtsean esaten dutena da Usurbilek ez duela lur industrial gehiago behar eta



Usurbilgo Udala



lursail osoa nekazal lurretara bideratzea eskatzen dute. Alegazioaren puntu hau ez onartzea proposatzen dela adierazi du.

Alegazioaren bigarren puntuari dagokionez, emandako informazioan hainbat hutsune ikusten zituztenez hainbat datu eskatzen dutela esan du. Batzordetik pasa zenean, eskatzen zuten informazio guzti hori aurkeztu zuela arkitektoak esan du. Alegazioan zioten, besteak beste, sekzioak eta zein ziren jakin behar zutela, eraikinak beraien nekazal lurretan zein itzal izango zuen jakiteko. Lehen aipatutako lerroak atzeratzean, eraikinak itzal gutxiago egingo dutela adierazi du. Halaber, jendaurrean berriz jartzea ere eskatzen zutela eta honen aurrean arkitektoak eta aholkulari juridikoak ezezkoa erantzun dutela adierazi du.

Azkenik, alegazioan eskatzen zutela dio eraikinaren altuera igotzeko ematen den aukera kentzea. Zehaztu du fitxa urbanistikoak esaten duela eraikuntzaren gehieneko altuera 7,5 metrokoa izango dela eta altuera hori haunditzea beharrezkoa balitz, justifikatu egin beharko litzatekela. Kasu honetan, erabaki hau udal ordezkarien esku utzi zela esan du eta hori horrela proposatu zutena izan zen altuera igo beharko balitz xehetasun azterlan bat aurkeztu beharko zutela eta horrek, alde batetik, nolabait justifikazioa egiaztatzen eramango du eta, bestetik, nekazal jardueraren duten aukera izango dute momentu horretan alegazioak aurkezteko.

Aipatu dituen arkitektoaren eta aholkulari juridikoaren txostenak hor daudela esan du, idazkariaren lege txostenarekin eta errepide sailaren txostenarekin batera.

Orain, Udalabatza Osoari dagokiola esan du behin behingo onespina ematea. Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera igorriko dela esan du txostena egin dezaten eta handik Foru Aldundira.

Josune Urkolak galdetu du ea erabaki honekin bi aldeak ados geratzen diren.

Alkateak erantzun dio erabat ezetz, baina bere ustez lehen baino adostasun maila handiagoa badagoela. Esfortzu handi bat egin dela eta interesatuen nahiak hobeto betetzen direla planteamentu honekin adierazi du.

Batzarkideek, Hirigintza Batzorde Informatzailearen diktamena aztertu dute eta gehiengo osoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Espediente zenbakia: HZ.01/2011-0213

### **AURREKARIAK**

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartzea erabaki zuen. Hauen testua 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 172. zkiko. aldizkarian.



Usurbilgo Udala



## Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektorari dagokionez, bere ezaugarrien fitxak honela dio hitzez hitz:

### 1- JARDUKETAIRIZPIDE ETA HELBURUAK

Industri zonalde misto bat sortzea nekazaritza eta arrantzatik eratorriak eta bere lehen eraldaketen ustiapenen zabalpena bertan lagundu dezan.

Garapenezko planeamenduak ibarreko ezaugarri naturalak kontenplatu beharko ditu eta industri ezarpenaren beharra dauden jardueren zabalkuntza eta hobekuntza justifikatu beharko du, egungoetan sorrera ez duten beste jarduera berririk ezarriko duen inongo garapenezko planeamendurik ez dela onetsia izango.

### 2- AZALERAK

Sektorearen azalera: 14.115 m<sup>2</sup>

Sestra gaineko eraikuntzak okupaturiko azalera: 2.823 m<sup>2</sup>

### 3- ERABILERAK

Erabilera industriala izango da, elikagai motako tradizionala, nekazaritza edo arrantzatik eratorriak eta bere lehen eraldaketak.

Isurkinen arazketa beharrik ez duten lantegi txiki eta industria txikia onartuko da.

Sestra gainean eraikitako azalera: 5.646 m<sup>2</sup>

### 4- ZUZKIDURAK

Aparkaleku plazak azalean: 57 UN

### 5- LAGAPENAK

Bidesare, espazio libre eta giza eta interes publiko duten zerbitzutara destinaturiko lurrago dira.

### 6- ERAIKUNTZAREN BALDINTZAK

Eraikuntzen baldintzak Plan Partzialak ezarriko ditu, honek bereziki erriberaren ingurugiroko babeserako beharrezkoak diren parametroak jaso beharko dituelarik, bere hobekuntzarako esku hartze eginkorraren prozedurak jasorik.

Eraikuntzaren gehieneko altuera 7'5 mkoa izango da. Altuera haundiagoa beharrezkoa balitz, garatzen den ihardueraren ezaugarriengatik berariazko justifikapena beharrezkoa izango da bere onespenerako.

### 7- ANTOLAMENDUA

Sektore honetarako ezaugarrien fitxen plano gainjarrian izendatutako eraikuntzak ordenazioz kanpokotzat hartzen dira, eta orokorki Sektorea zuzenki ordenatzeko eta urbanizatzeko galarazten duten eraikuntza, eranskin eta txabola guztiak, erreferentzi kartografiko ezagatik, planoetan jaso gaberik ere.

Arau Subsidiario hauetako planoetan isladatutako ordenazio xehakaturia orientagarria da soilik.

Behin betiko ordenazioa eta gainontzeko xedapenak Plan Partzialak ezarriko ditu.

Eraikuntzaren gutxieneko atzerapena errepidearen ezpondaren kanpoko lerro edo ertzetik, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzen duen ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretuak ezartzen duena errespetatu beharko du.

Eraikuntzek gutxieneko 20 mko atzerapena errespetatu beharko dute Sektorearen mugetatik.

### 8- JARDUKETA

Urbanizatzeko Jarduketa-Programak Jarduketa sistema ezarriko du.

### 9- KUDEAKETA

Kudeaketa Urbanizatzeko Jarduketa-Programan xedatutako da aukeratutako sistemaren arabera.

### 10-PLANEAMENDU OSAGARRIA

Plan Partzial bat, Urbanizatzeko Jarduketa-Programa bat eta Urbanizazio Proiektu bat izapidetu beharko da Sektore osorako.



Usurbilgo Udala



#### 11- LURZORUAREN JABETZA

Erabilera eta jabari publikorako destinatuturiko azalera Udalarari lagako zaio urbanizatu ondoren.

Sektore hau hiru jabeen esku dago: Foru Aldundia, Pescados y Mariscos Atxega S.A, eta Lertxundi eta Izarraitz baserrietako jabeak, jarduketa sistema hitzarmen-sistema izanik.

AASSak onartu direnetik, sektorea ez da garatu jabeen arteko adostasun ezagatik. Jabetzaren zati handiena duten jabeek (Lertxundi eta Izarraitz) industri sektorea garatzeko interesa ez dute, eta jabetzaren zati txikiena duenak ordea, (Atxega, S.A) bere industri jarduera aurrera eramateko pabilioi bat eraikitzea beharra adierazten du.

Ondorioz, Usurbilgo Udalak, 2011ko apirilaren 27an egindako Hirigintza Batzordean, sektorea bi (S-4.1 y S-4.2) sektoretan zatituz, sektorea bultzatzeko borondatea agertu zuen. Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen S-4 (Txagañeta) Sektoreko ezaugarri fitxaren aldaketa puntuala idatzi eta Plenoak 2011ko maiatzaren 17an hasierako onarpena eman zion eta jendaurrean jarriz (2011ko maiatzaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean – 98 zkia).

Jendaurreko epealdian, Miren Maioz Redondo andereak eta beste 11 lagunek, alegazioa tartekatu zuten Aldaketa Puntualaren hasierako onespeneren aurrean. Jendaurrean tartekatutako alegazioen alderdi juridikoen inguruko txostena landu zuen 2011ko uztailaren 22an Nekane Azarolak, ARAUDI S.L.ko hirigintzako aholkulariak, non alegazioak ez onartzea proposatzen zen, alegazioek ez zutelako desklasifikazioa justifikatzen.

Bestalde, 2011ko azaroaren 21ean Ekhiñe Egiguren udal arkitektoak txosten bat idatzi zuen Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren espedientearen inguruan, besteak beste, adieraziz hasierako onspena jaso zuen dokumentuak ez zuela 2/2006 Legearen 77.5. artikulua xedatutakoa betetzen eta ezta Jarduera Ekonomikoen Inguruko Lurralde Antolamendu Planak xedatutakoa, hain zuzen ere 262/2004 Dekretuaren 11.c.artikulua. Horrela aipatu txostenean adierazitakotik ondorioztatzen zenez, S.4.1ean eraikinak sektoreko %30eko azalera baino gutxiago hartzen zuen eta S.4.1 eta S.4.2.ak ez zuten betetzen gutxieneko aparkaleku kopuruari dagokiona.

Aipatu txosten tekniko honen ondoren, 2012ko urtarrilaren 3an dagokion txosten juridikoa landu zuen Nekane Azarolak, ARAUDI S.L.ko hirigintzako aholkulariak. Hasiarako onarpena eman zitzaion Aldaketa Puntualaren espediente dokumentuak hirigintzako estandar guztiak ez zituztela betetzen ikusi ondoren, behar bada, ordenazio proposamen berri bat aztertu beharko litzatekeela proposatzen zuen eta bestalde, 30/1992 Legeko 105. artikulua baitan 2011ko maiatzaren 17ko Udaltza Osoko bilkurak hartutako erabakiaren ezeztapena. Proposamen honekin bat egin zuen idazkariak 2012ko urtarrilaren 16ko txostenean.

Aipatu guztiagatik, 2012ko urtarrilaren 31ko udal osoko bilkurako akordio bidez, aurkeztutako alegazioak ezeztatu ziren, eta Plangintzako Arau Subsidiarioen



Usurbilgo Udala



aldaketarako espedientearen hasierako onarpena ezeztatu zen, hirigintzako araudiak eskatzen dituen estandarrak ez zirelako betetzen.

2012ko martxoaren 9an, Lertxundi baserriko jabeek, beren lursailak nekazaritza erabilera dutela eta aldaketa espedientearen eragina izango duten lursailean, nagusiki letxuga eta kuia landatzen dutela adieraziz idatzi bat aurkeztu dute, eta adierazpen hori egiaztatzen dituen agiriak ere.

### **Aldaketa puntualaren aurrerapena**

Ondoren, eta eragingo dien jabeekin hainbat bilera egin ondoren, Usurbilgo Udalak, S-4 Sektorea garatzen utziko zuten proposamen berriak planteatu zituen, bai interes publikoa bai lurzatiaren jabeen interesak errespetatuz. Horrela, AASSetako S-4 Txagañeta Sektoreari ordenazio berria ematea eta modu honetan bere kudeaketa ahalbideratzea helburu duen dokumentua (AURRERAKINAK) prestatu zuten Ekhiñe Egiguren udal arkitektoak eta Nekane Azarola abokatuak, ARAUDI, S.L.ko hirigintza aholkulariak. Espedientearen aurkitzen da idazkariak 2012ko maiatzaren 22an aurrerakinaren inguruan landutako txostena.

Aurrerakin hauek planteatzearen arrazoa (eta ondoren dagokion Aldaketa Puntuala) izan da Usurbilgo Arau Subsidiarioak onartu zirenetik, S-4 "Txagañeta" Sektorea ez dela garatu, jabetzaren kudeaketa izanik horretarako arrazoi bat. Hau da, jabetza portzentaje handiena duenak ez du hirigintzako kudeaketa bultzatu, eta ondorioz, %50a ez duen jabeak ezin du onartu zaion hirigintza aprobetxamendua gauzatu. Batetik, lurzoru urbanizagarria bezala sailkatutako lurzoru baten kudeaketa bultzatzeko, jabeetako batek plangintzak onartutako hirigintza aprobetxamendua gauzatzeko beharra adierazten duelako; eta bestetik, eraikitze eskubidea eta gaur egun nekazaritza erabilera duten lursailen babesa bateragarri izateko aukeragatik, Usurbilgo udalak aldaketa espediente hau bultzatzen du, jarraian adierazten diren helburuak dituzten bi ordenazio proposamen planteatuz: S-4 "Txagañeta" Sektoreko mugapena murriztea bertako kudeaketa ahalbideratzeko; S-4 Sektoreko zati baten sailkapena aldatzea (*azalera planteatutako proposamenen arabera aldatuko litzateke*), Lertxundi eta Izarraitz baserrietako jabeek egindako eskaera (beren lursailen nekazaritza erabilera errespetatzea) betetze arren; S-4 Sektore zati batetarako urbanizagarri industrial sailkapena mantentzea, Pescados y Mariscos Atxega S.A. enpresak bere jarduera garatzeko aukera emango dion pabilioia eraiki dezan eta S-4 Sektore berri bat sortzea, Euskadiko Lurzoruaren Legeak ezarritako estandarrak betetzeko.

Alkateak, 2012ko ekainaren 5ean emandako 2012/0531 Dekretuaren bidez, Hiri Antolamenduko AASSetako S-4 Txagañeta Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntualaren Aurrerapena bi hilabetez jendaurrean jartzea erabaki zuen (2012ko ekainaren 12ko GAO). Jendaurreko epealdian bost iradokizun edota erreklamazio aurkeztu ziren. Eskaera nagusienetako bat karobiaren babesa bermatzea zen. Alkatearen 2012/0908 Dekretu bidez, Nekane Azarola abokatuak, ARAUDI, S.L.ko hirigintza aholkulariak 2012ko irailaren 12an izenpetutako txostena aintzat harturik, aipatu erreklamazioak erantzun ziren eta hogeitun laneguneko epea eman zitzaizen



Usurbilgo Udala



iradokizun edo erreklamazioak tartekatu zituztenei sektorearen garapena, karobiaren babesarekin bateragarria den eta hirigintza legediak ezarritako zehaztapen eta estandarrak betetzen dituen ordenazio proposamen bat aurkezteko. Epe horretan ez zen inolako proposamenik jaso.

2012ko urriaren 19an udalean jaso zen Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendari Nagusiak 2012ko urriaren 17an udalak luzatutako kontsultaren erantzuna, bat datorrena espedientean aurkitzen diren dokumentazio eta txostenekin (eta tartekatutako erreklamazioetan adierazitakoaren aurka), izan ere bertan espresuki jasotzen da Aldaketa Puntualean proposatutako esparrua eta jarduerak ez daudela ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren prozedura arautzen duen 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuko 4.2. artikulua jasotzen dituen kasuen barruan eta beraz ondorio gisa esan daitekeela S-4 Sektoreko (Txagañeta) Ezaugarrien Aldaketa Puntualak ez duela ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenik eragingo, eta horren ondorioz, ez zaiola aplikatu behar ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedurarik.

Geroztik eta eragingo dien jabeekin (Atxega S.A., Lertxundi eta Izarraitz) hainbat bilera egin ondoren, Usurbilgo Udalak, S-4 Sektorea garatzen utziko duen proposamena landu zuen, bai interes publikoa bai lurzatieen jabeen interesak errespetatuz, bere garapena ez dadin orain arte bezala geldituta geratu. Horrela Sektorearen reordenazioa proposatu zen, non karobia babesten den, lurzoru industrialak desklasifikatzen den nekazal lurra mantentzeko Lertxundi baserrikoek eskatzen duten bezala, Pescados y Mariscos Atxega S.A.ri bere jardueraren hazkundera ahalbideratzen zaio eta Udalak aldameneko eraikinetara sarbidea hobetzen du bial berri bat sortuz eta ondorioz Aginako hirigintza hobekuntza bultzatuz.

### **Aldaketa puntualaren hasierako onspena**

Xede hauekin, udal arkitektoak, Ekhiñe Egituren Azkune andereak, eta udal aholkulari juridikoak, Nekane Azarola Martínez andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa (10 Aldaketa) Puntualaren hasierako onspenerako dokumentua prestatu zuten 2013ko urrian.

Espedientean aurkitzen da udal idazkariak 2013ko urriaren 17an landutako txostena.

Gauzak horrela, Plenoak, 2013ko urriaren 29an egindako bileran, Hiri Antolamenduko Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa (10 Aldaketa) Puntualari hasierako onspena ematea eta berau jendaurrean jartzea erabaki zuen.

Dokumentua jendaurrean jarri zen hilabetez, ondoko iragarkiak argitaratuz:

- a) Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (210. zenbakia): 2013-11-05
- b) Berria: 2013-11-01
- c) Gara: 2013-11-01





Usurbilgo Udala

d) El Diario Vasco: 2013-11-05

Jendaurreko epealdiaren amaiera: 2013/12/07

## **ALEGAZIOAK**

Jendaurreko epealdian, ondoko alegazioak aurkeztu dira:

Alegazioa zenbakia	Interesatua	Sarrera	
		Eguna	Zenbakia
1	Joaquin Achega Aizpurua	2013-12-05	4204
2	Miren Maioz Rekondo eta beste batzuk	2013-12-10	4259

Jasotako alegazioen edukia ondokoa da:

### **1.- alegazioa**

Sarrera data – Sarrera zenbakia: 2013-12-05 / 4204

Interesatua: Joaquin Achega Aizpurua

Alegazioak honela dio hitzez hitz:

DON JOAQUIN ACHEGA AIZPURUA, mayor de edad, con DNI xxxxxxxx, en nombre y representación de la mercantil "ATXEGA, PESCADOS Y MARCIOS S.A.", domiciliada en Aginaga — Usurbil, Casa Mutiozabal 17, ante V. l. comparecen y

EXPONE

Que por medio del presente escrito, y dentro del periodo de exposición al público del documento de Aprobación inicial de la Modificación Puntual (Modificación 10) de la Ficha Características del Sector S-4 (Txagañeta) de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Urbanístico desea formular las siguientes

### **ALEGACIONES**

#### **PRIMERA.- LÍMITE DEL SECTOR**

La ordenación municipal ha apurado la ordenación hasta el límite del sector, con la intención de cumplir la legislación vigente — ocupación mínima en la parcela y edificación — y obtener la máxima superficie de terreno en la parte norte, destinada a espacios libres y protección de la calera.

Esta ordenación planteada por el Ayuntamiento va a obligar a ocupar suelo externo, de otra titularidad con carácter transitorio, a fin de ejecutar las obras de urbanización, lo cual puede suponer ciertos problemas.

Esta ocupación externa se pretendía evitar por esta parte, en lo que respecta al límite oeste, mediante un retranqueo — imagen adjunta-.




Usurbilgo Udala

## **SEGUNDO**

### **Q.-** **APROVECHAMIENTOS**

En cuanto a la determinación del perímetro de ocupación en planta, la propuesta del expediente de modificación

determina una ocupación exacta, lo cual impide otras alternativas de desarrollo de la edificación y actividad que puedan darse.



No disponer de un perímetro más holgado que la superficie mínima exigible -1600m<sup>2</sup>- anula dichas alternativas.

## **TERCERO.- APARCAMIENTOS**

En lo que respecta al cumplimiento en la parcela privada, el plano n° 11 grafía con carácter orientativo 23 plazas. El texto de la norma particular reitera el carácter orientativo y señala la posibilidad del cumplimiento en el interior de la edificación.

Esta posibilidad es importante porque lo grafado – aparcamientos 1 al 11- es incompatible con el cumplimiento del Reglamento de Seguridad contra incendios en establecimientos industriales, según se indica en el apartado segundo.

## **ANEXO II.- REQUISITOS CONSTRUCTIVOS DE LOS ESTABLECIMIENTOS INDUSTRIALES SEGÚN SU CONFIGURACIÓN, UBICACIÓN Y NIVEL DE RIESGO INTRÍNSECO**

### **A.2 Condiciones de aproximación de edificios.**

Los viales de aproximación hasta las fachadas accesibles de los establecimientos industriales, así como a los espacios de maniobra a los que se refieren el apartado anterior, deben cumplir las condiciones siguientes:

- Anchura mínima libre: 5 m
- Altura mínima libre o gálibo ;4,50m
- Capacidad portante del vial: 2000kp/m<sup>2</sup>.

Asimismo, los aparcamientos grafados con los n° 18-19 y 20 imposibilitan el giro de un turismo compacto.

## **CUARTO.- CONDICIONES DE EDIFICACIÓN. ALINEACIONES Y RASANTES.**

### **ALINEACIONES:**

De los planos facilitados en el documento de modificación se desprende que se establecen alineaciones obligatorias, no mencionadas en el texto de la norma particular, lo cual, puede acarrear algunos problemas.



Usurbilgo Udala



La alineación obligatoria en planta baja — extremo suroeste- dificulta las maniobras de acceso y salida de vehículos. Y la alineación de la fachada oeste en planta baja, a 5 m del límite del sector, obliga a suprimir las plazas de aparcamiento para el cumplimiento de Reglamento de Seguridad contra incendios en establecimientos industriales, y a incorporar éstas a la planta superior o al interior de la edificación.

### **RASANTES**

Así mismo, se desprenden de los planos, que se establecen rasantes, no mencionadas en el texto de la norma particular. El establecimiento de rasantes tiene incidencia directa en la medición de la altura de la edificación de planta primera y de la altura libre de planta baja. El documento establece la cota 15,30 en el interior de la parcela, en lo referido a la planta primera, y la cota 12,30 en el interior de la parcela, en lo referido a planta baja.

No parece recomendable ni correcto que la rasante de planta primera sea inferior a la rasante de la rotonda.

Esta parte plantea la cota a 15,65 m y la cota 12,00 m respectivamente, con el objeto de garantizar en planta baja, sin descender de la cota del terreno colindante, la máxima altura libre interior y de posibilitar unas mínimas pendientes de evacuación de aguas pluviales en la parte no edificada de planta primera.

### **QUINTO.- USOS**

La norma particular señala: *"El uso será industrial de tipo alimenticio tradicional, agrícola o derivados de la pesca y sus primeras transformaciones. El edificio industrial se destinará a una única actividad, siendo el mismo indivisible y vinculado en su totalidad a la parcela en que se ubica,"*

Esta propuesta, no permite que el edificio acoja 2 o más empresas diferenciadas con actividades incluidas en el tipo fijado, lo cual incide en la gestión empresarial de la actividad.

Por todo lo expuesto,

**SOLICITO DE V.I.**, tenga por formuladas estas alegaciones, a los efectos legales oportunos

En Usurbil a 2 de diciembre de 2013.

Fdo. Jokin Atxega Aizpurua

## **2.- alegazioa**

Sarrera data – Sarrera zenbakia: 2013-12-10 / 4259  
Interesatua: Miren Maioz Rekondo eta beste batzuk  
Alegazioak honela dio hitzez hitz:

### **USURBILGO UDALEKO ALKATESA ANDEREA**

**MIREN MAIOZ REKONDO Anderea**, adinez nagusia, Usurbilgo bizilaguna, xxxxxxxxxx zenbakidun N.A.N. duena;

**MANUEL BEGIRISTAIN AZURMENDI Jauna**, adinez nagusia, Usurbilgo bizilaguna, xxxxxxxxxx zenbakidun N.A.N. duena;



Usurbilgo Udala



**XABIER BEGIRISTAIN AZURMENDI Jauna**, adinez nagusia, Usurbilgo bizilaguna, xxxxxxxxxx zenbakidun N.A.N. duena;

**JOXE MARI EIZAGIRRE ARANGUREN Jauna**, adinez nagusia, Usurbilgo bizilaguna, xxxxxxxxxx zenbakidun N.A.N. duena;

**JOSE MIGUEL BEGIRISTAIN AZURMENDI Jauna**, adinez nagusia, Usurbilgo bizilaguna, xxxxxxxxxx zenbakidun N.A.N. duena;

**MARIA DEL CORO OTEGUI GALARKIN Anderea**, adinez nagusia, Usurbilgo bizilaguna, xxxxxxxxxx zenbakidun N.A.N. duena;

**AINHOA BEGIRISTAIN OTEGI Anderea**, adinez nagusia, Usurbilgo bizilaguna, xxxxxxxxxx zenbakidun N.A.N. duena;

**IRATXE BEGIRISTAIN OTEGI Anderea**, adinez nagusia, Usurbilgo bizilaguna, xxxxxxxxxx zenbakidun N.A.N. duena;

**MARIA DOLORES BEGIRISTAIN AZURMENDI Anderea**, adinez nagusia, Usurbilgo bizilaguna, xxxxxxxxxx zenbakidun N.A.N. duena;

**TOMAS RODRIGUEZ MARTINEZ Jauna**, adinez nagusia, Usurbilgo bizilaguna, xxxxxxxxxx zenbakidun N.A.N. duena, eta

**MARIA BEGOÑA BEGIRISTAIN AZURMENDI Anderea**, adinez nagusia, Usurbilgo bizilaguna, xxxxxxxxxx zenbakidun N.A.N. duena.

**JUAN BEGIRISTAIN AZURMENDI Jauna**, adinez nagusia, Donostiko bizilaguna, xxxxxxxxxx zenbakidun N.A.N. duena.

Guztiek heuren izen eta eskubidean esku hartzen dute, efektu hauetarako helbidea Usurbilen, Lertxundi Baserría, Agina Bailaran dutelarik,

#### **ADIERATEN DUTE:**

Azaroaren 5ean, 210. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarpenaren ezagupena eduki dutela, Udal Batzarrak 2013ko urriaren 29an eginiko bileran hartutako akordioaren berri ematen duena, *USURBILGO HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO S-4 (TXAGAÑETA) SEKTOREKO EZAUGARRI FM:AREN ALDAKETA PUNTUALA* jendaurrean jartzea erabaki zuena.

Aztertu ondoren bere edukiak, eta emandako epe barruan, formulatzen ditugu ondorengo

#### **IRADOKIZUNAK:**

**LEHENA.- AILEGATZAILEEN IZAERA, ESPEDIENTEAREN ERAGINPEAN DAUDEN LURREN ZATI BATEN NEKAZARITZA ERABILERA ETA UDALERRIAN INDUSTRIA LURZORU GEHIAGO GARATZEKO BEHARRIK EZ EGOTEA.**

Aurretik aurkeztutako alegaziotan jada adierazi genuen (i) izenpetzen dugunak Lertxundi eta Izarraitz baserrien jabe ginela, (ii) eraginpean zeuden lurren zati bat nekazaritzako ustiapen intentsiborako erabiltzen zela, eta (iii) udalerrian industria-lurzoru gehiago garatzeko beharrik ez zegoela, hainbat industria-pabilioi hutsak eta erabilera espezifikorik gabe zeudenean. Aipaturiko alderdi horiek berresten ditugu eta bertan ez dugu gehiago sakonduko.

**BIGARRENA.- 2/2006 LEGEAREN 61.B) ARTIKULUAREN AURREIKUSPENAREN ARABERA EGITURATUTAKO PLANGINTZA OROKORRA ALDATZEA: AZKEN EMAITZA EGIAZTATZEA AHALBIDETUKO DUTEN ZENBAIT ZEHAZTAPENEN DEFINIZIO EZA.-**



Usurbilgo Udala



Jendaurrean jakinarazteko antolamendu integraleko dokumentuaren aldaketa puntuatuko espedientearen egituratu da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, esparruaren antolamendu xehatua bilduz bertan.

Horren haritik, eta kontuan hartuz proiektatutako antolamenduaren arabera lurzoru urbanizagarriaren eta urbanizaezinaren arteko mugan aparkaleku-lerro bat ezarri dela –bi lurzoruen artean elementu urbanizaturik ez duen iragaite-zonarik jarri gabe–, gure ustez dokumentuak emaitzazko sekzioen planoak eduki beharko lituzke, sestrei buruzko planoak ematen duen informazioaren bidez ezin baita behar bezala egiaztatu azken emaitza zein izango den.

Adierazitakoari honakoa erantsi behar diogu: aldatutako fitxaren proposamenaren ikusitakoaren arabera, estalki lauaren barruko sestra, gehienez, 1,50 m-ko altueran koka daiteke, eta bertatik has daiteke lehen solairua, gehienez, 7,50 m-ko altuera izango duena –sarrerako eta maniobrako zabaldegia kanpoaldeko sestratik kontaktzen hasita–. Hortaz, ezin dugu behar den xehetasunekin ikusi eraikina nola geratuko den eta lurzoru urbanizaezinean zein eragin izango duen.

Informazio hori edukiz gero, gainera, nekazaritza-ustiapen intentsibora bideratutako baserrien aldameneko lurren gainean industria-eraikinaren itzalak zein ondorio eduki ditzakeen egiaztatu ahal izango genuke.

Informazio horrek ez du aparteko eragozpenik eragin behar, ondorioztatutakoaren arabera, Pescados y Mariscos Atxega SArentzako "ad hoc" jarduera baita. Eraikitze proiektuak aurreratua egon behar duenez, begi bistakoa da proposatutako fitxa berrian bildutako aurreikuspena ezabatu behar dela, eraikina oraindik altuagoa egiteko aukerari dagokionean, horretarako justifikazio teknikoa baldin badago.

Hortaz, eta emaitzazko atalei buruzko informazioari dagokionean, jendaurrean jakinarazteko beste epea zabaltzeko edo, gutxienez, izenpetzen dugunoi adierazi nahi duguna adierazteko aukera eman diezaguten eskatzen dugu, analizatutako dokumentazio berriaren emaitzen arabera alegazioak egin ahal izateko, halakorik behar izanez gero.

Azaldutakoa kontutan edukiz,

#### **ESKATZEN DUGU:**

Idatzi hau aurkeztutaz edukiz onartu dezan, eta bertan *USURBILGO HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO S-4 (TXAGAÑETA) SEKTOREKO EZAUGARRI FITXAREN ALDAKETA PUNTUAL*ari eginiko iradokizunak burututaz edukiz, onar ditzan, erabakiz eskatu den moduan.

Usurbil, 2013ko abenduak 6

Stua.: Miren Maioz Rekondo.  
Stua.: Manuel Begiristain Azurmendi.  
Stua.: Xabier Begiristain Azurmendi  
Stua.: Joxe Mari Eizagirre Aranguren.  
Stua.: Jose Miguel Beguiristain Azurmendi.  
Stua.: María del Coro Otegui Galarkin.  
Stua.: Ainhoa Begiristain Otegi.  
Stua.: Iratxe Begiristain Otegi.  
Stua.: María Dolores Beguiristain Azurmendi.  
Stua.: Tomas Rodríguez Martínez.  
Stua.: María Begoña Beguiristain Azurmendi.  
Stua.: Juan Beguiristain Azurmendi.

## **ALEGAZIOEN INGURUKO TXOSTEN JURIDIKOA**



Usurbilgo Udala



ARAUDI S.L.P. Taldeko Nekane Azarola Martinez andereak, udaleko aholkulari juridikoak, hasierako onespenerako dokumentuari aurkeztutako alegazioak aztertu ostean, 2014ko urtarrilaren 22an ondoko txostena eman du:

**HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO S-4 (TXAGAÑETA)  
SEKTOREKO EZAUGARRI FITXAREN ALDAKETA PUNTUALAREN  
HASIERAKO ONESPENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKO  
TXOSTEN JURIDIKOA**

**I.- AURREKARIAK**

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartzea erabaki zuen. Hauen testua 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 172. zkiko. aldizkarian.

Hirigintza agiri horretan, hiri lurzorua eremuetan banatzen da eta urbanizagarria sektoreetan, S-4 “*Txagañeta*” sektorea izanik, agiri honen eragipean gelditzen dena.

Sektore hori hiru jabeen esku dago: Udala, Pescados y Mariscos Atxega S.A, eta Lertxundi eta Izarraitz baserrietako jabeak, jarduketa sistema hitzarmen-sistema izanik.

AASS agiria onartu denetik, sektorea ez da garatu jabeen arteko liskarren ondorioz, jabetza zati handiena duten jabeek (Lertxundi eta Izarraitza) industri sektorea garatzeko interesa ez dutelako, eta jabetza zati txikiena duena ordea, (Atxega, S.A) bere industri jarduera aurrera eramateko pabilioi bat eraikitzea beharra adierazten du.

Ondorioz, Usurbilgo Udalak, 2011ko apirilaren 27an egindako Hirigintza Batzordean, sektorea bi (S-4.1 y S-4.2) sektoretan zatituz, sektorea bultzatzeko borondatea agertu zuen.

Usurbilgo Arau Subsidiarioen S-4 (Txagañeta) eremuko ezaugarri fitxaren aldaketa puntuala idatzi eta maiatzaren 17ko Usurbilgo udal osoko bilkurak hasierako onarpena eman zion, jende aurrean jarriz (2011ko maiatzaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean – 98 zkia).

Horretarako emandakoa epean, Miren Maioz Redondo andereak eta beste 11 lagunek, aipatu espedienteari alegazioak aurkeztu zizkioten.

2011ko uztailaren 22ko txosten juridikoan, aurkeztutako alegazioak ezezte proposatu zen, alegazioek ez zutelako eremuko sailkapena kentzea justifikatzen. Hori bai, aipatu txostenean, Lurzoruaren Euskal Legearen estandarrak eta jarduera ekonomikoen Plan Sektorialaren 11. artikulua betetzen ziren egiaztatuko zuen txosten tekniko bat egitea eskatu zen.



Usurbilgo Udala

2011ko azaroaren 21ean, udal arkitektoak txosten bat idatzi zuen Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientearen inguruan, hasierako onarpena eman zizaion dokumentuari buruz ondorio hauek ateraz:

- S.4.1 eremuan ez da betetzen ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 77.5 artikulua, eraikina sektoreko %30eko azalera baino gutxiago hartzen baitu.
- 79.3 artikulua ezartzen duena, ez da bi sektoreetako bakar batean justifikatzen.
- Bi sektoreek ez dute betetzen Jarduera Ekonomikoen Plan Sektorialaren 11.c artikulua, zehazki gutxieneko aparkaleku kopuruari dagokiona.

Aipatu guztiagatik, 2012ko urtarrilaren 31ko udal osoko bilkurako akordio bidez, aurkeztutako alegazioak ezeztatu ziren, eta Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketarako espedientearen hasierako onarpena ezeztatu zen, hirigintzako araudiak eskatzen dituen estandarrak ez zirelako betetzen.

2012ko martxoaren 9an, Lertxundi baserriko jabeek, beren lursailak nekazaritza erabilera dutela eta aldaketa espedientearen eragina izango duten lursailean, nagusiki letxuga eta kuia landatzen dutela adieraziz idatzi bat aurkeztu dute, eta adierazpen hori egiaztatzen dituen agiriak ere.

Ondorioz, eta eragingo dien jabeekin hainbat bilera egin ondoren, Usurbilgo Udalak, S-4 sektorea garatzea utziko zuten proposamen berriak planteatu zituen, bai interes publikoak bai lursailen jabeen interesak errespetatuz.

Hori dela eta, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntualaren aurrerapena idatzi zen, bertan, planeamenduko agiriaren memorian azaltzen zen moduan, bi ordenazio proposamen planteatzen dira.

1. S-4 "Txagañeta" eremuko mugapena murriztea bertako kudeaketa ahalbideratzeko.
2. S-4 eremuko zati bati sailkapena kentzea (*azalera planteatutako proposameneren arabera aldatuko da*), Lertxundi eta Izarraitz baserrietako jabeek behin eta berriro egindako eskaera - beren lursailen nekazaritza erabilera errespetatzea - betetze arren.
3. S-4 sektore zati batetarako urbanizagarri industrial sailkapena mantentzea, Pescados y Mariscos Atxega S.A enpresak bere jarduera garatzeko aukera emango dion pabilioia eraiki dezan.
4. S-4 sektore berri bat sortzea, Euskadiko Lurzoruaren Legeak ezarritako estandarrak betetzeko.

2012ko ekainaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean – 111 zkia. duena – Alkatearen ekainaren 5eko 2012/0531 dekretua argitaratu zen, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri



Usurbilgo Udala

Fitxaren Aldaketa Puntualaren aurrerapena – bi hilabetez – jendaurrean jartzea erabakitzen duena.

Horretarako emandakoa epean, Jakoba Errekondo, Josu Tellabide eta Asier Agirresarobe, Joxe Mari Irazusta eta Miren Maioz Redondo andereak eta beste 10 lagunek, aipatu espedienteari alegazioak aurkeztu zizkioten.

Alegazioetan – nagusiki – Lertxundiko karobia babestea eskatzen zen, Usurbilen dagoen bakarra eta duen izaera historikoa eta kulturala dela eta, Karobiaren garrantzia adieraziz.

Ondorioz, Usurbilgo Udalari Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntualarekin aurrera ez egitea eskatzen zitzaion; eta aurrera jarraitzekotan, karobia ez eraistea eta bere inguruan 50 metrotako babes eremua ezartzea.

Bestalde, berriz ere, Plan Orokorra aldatzeko espediente bat tramitatzeko beharra adierazten da, 2/2006 legearen 90.1 artikuluan araututakoa beteaz. Artikulu honek honela xedatzen baitu: Plan Orokorra egitea erabakitzen denean, *informazioa eskatuko zaiela Eusko Jaurjaritzan eta dagokion foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Eta informazio hori emateko, bi hilabeteko epea egongo dela, eta justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera emango dela.*

Aurkeztutako alegazioen aurrean, eta udal zerbitzuak dagokion txostena egin ondoren, Usurbilgo Udalak jarduketa hauek egin zituen:

- a) Eremuaren ordenazio berri bat aztertzea, karobia mantentzea eta babes eremu bat sortzea dakarrena.
- b) Kontuan harturik udal teknikarien ustetan, aldaketa espedienteak ez badu ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa behar, ez direla 2/2006 Legearen 90.1 artikulua eskatzen dituen informazioak eskatu behar, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako departamentuari gai honen inguruko galdera egin zitzaion.

2012ko urriaren 17an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Publikoetako Zuzendari Nagusiak, Usurbilgo Udalak S-4 “Txagañeta” eremuan sustatu nahi duen aldaketa espedienteak ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa ez duela behar galdetuz, udalak egindako kontsultari erantzuna eman zion.

Eraginpeko eta interesdun pertsonekin (Atxega S.A., Lertxundi eta Izarraitz) hainbat bilera egin ostean, Usurbilgo Udalak proposamen bat prestatu zuen, honen helburua izanik bi alderdien eskaerei erantzuna ematea eta bere exekuzioarentzako baliagarri eta bideragarria den sektoreko ordenazio bat ezartzea, bere sustapena – gaur egun bezala – geldituta egotea saihestuz.





Usurbilgo Udala

Ondorioz, Plenok 2013ko urriaren 29an egindako bileran, proposamen berriari hasierako onespena ematea eta agiria jendaurrean jartzea erabaki zuen.

Dokumentua jendaurrean jarri zen ondoko iragarkiak argitaratuz:

- \* Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (2013-11-05).
- \* Berria: 2013-11-01.
- \* Gara: 2013-11-01.
- \* El Diario Vasco: 2013-11-05.

Jendaurreko epealdian, bi alegazio aurkeztu ziren:

- a) Joaquin Achega Aizpurua, 2013ko abenduaren 5ean aurkeztua.
- b) Miren Maioz Rekondo eta beste batzuk, 2013ko abenduaren 10ean aurkeztua.

Hori dela eta, idatzi honen bidez, aurkeztutako alegazioak juridikoki informatzeari ekiten zaio.

## **II.- AZTERKETA JURIDIKOA.**

**Lehendabiziko alegazioa.**- Joaquin Achega Aizpurua aurkeztutakoa.

Joaquin Achega jaunak aurkeztutako alegazioa 5 atal desberdinez osatutako dago. Txosten juridiko honetan lehenengo eta bosgarren atalean adierazitakoari erantzuna ematen zaio, eta gainerako atalak udal arkitektoak erantzun beharko ditu, aspektu teknikoen ingurukoak baitira.

### **A.- Alegazioaren laburpena.**

Alegazioaren lehendabizikoa atala, eremuko mugaren buruzkoa da, honako hau adierazten duelarik: *“la ordenación planteada por el Ayuntamiento de Usurbil, obliga a ocupar suelo externo, de otra titularidad con carácter transitorio, a fin de ejecutar las obras de urbanización, lo cual puede suponer ciertos problemas.*

*Esta ocupación externa se pretendía evitar por esta parte, en lo que respecta al límite oeste, mediante un retranqueo –imagen adjunta.”*

Bosgarren atalean, eraikuntza industrial erabilera bakarrekoa izatearen kontrako alegazioa da, eta ondorioz zatiezina eta bere osotasunean kokatzen den partzelari lotua egotearen buruzkoa.

### **B.- Alegazioaren azterketa.**

Lehenik eta behin adierazi beharra dago, lursailen sailkapena eta kalifikazioa egiteko garaian, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 3 eta hurrengo artikuluetan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu behar direla, eta EZ lurzoruen jabetza irizpideak jarraitu.



Usurbilgo Udala



Txagañetarako onartu den Arau Subsidiarioetako Aldaketa espedientean, sektore bat mugatu nahi da, pabilioi bat eraikitzeko aukera emanaz, kontuan harturik kokatzen den inguruko ezaugarriak eta, legeak ezartzen dituen estandarrak beteaz.

Mugaketa ordenazio irizpideak jarraituz egin da, jabetza pribatuko bateko edo besteko metro batzuk hartzea erabakigarria izan gabe.

Alegazioan adierazten da, planteatu den ordenazioaren arabera, urbanizazio lanak gauzatzeko beharrezkoa dela – **behin behineko izaeraz** – beste jabetzakoa eta sektoretik kanpo gelditzen diren lurrak hartzea.

Zentzu honetan, eta kontuan harturik Arau Subsidiarioetako Aldaketa espedientean ezarritako lerrokadurak gehienez har daitezkeenak direla, eraikuntzak eta urbanizazioa amaituak sektorearen mugak errespetatu beharko dituzte, kanpoko lurzorua hartu gabe.

Bosgarren alegazioan, eraikin berdinean bi edo enpresa gehiago kokatzeko aukera edukitzea planteatzen da, hasierako izaeraz onartu den agirian, eraikinak erabilera bakarra eduki dezan jasotzen baita, zatiezina izanik, eta kokatzen den partzelara lotuaz.

Baldintza hau, eremua kokatzen den inguruarekin, azalerarekin eta S-4 Txagañetako ordenazio berarekin erlazio zuzena du.

Zentzu honetan, pabilioian bi edo jarduera gehiago jartzeko banaketa baimenak emateak, sektoreko funtzionamenduan arazoak sortuko lituzke, adibidez, kotxeak maniobrak egiteko garaian, aparkalekuen kokapenean, etab.

Aipatu guztiagatik, lehendabiziko eta bosgarren atalean jasotako alegazioak ez onartzea PROPOSATZEN da.

**Bigarren alegazioa.-** Miren Maioz Rekondo eta beste batzuk aurkeztutakoa.

#### **A.- Alegazioaren laburpena.**

Miren Maioz Rekondo andereak eta beste batzuk aurkeztutako alegazioan adierazten da – lehenik – nekazal ustiapenekoak eta bere jabetzakoak diren lur batzuk eraginpean gelditzen direla eta ez dela beharrezkoa udalerrian industrial eremu berririk garatzea, eta – bestetik – eraiki berriaren sekzioei buruzko informazioa eskatzen dute, lurzoru urbanizaezinean eduki ditzakeen eragina ezagutzeko.

Era berean, eskatutako informazioa bidali ostean, agiria berriro ere jendaurrean jartzeko edo gutxienez alegatzaileei entzutea eskatzen du, azken hauek dagozkion alegazio berriak sartzeko aukera izan dezaten.

#### **B.- Alegazioaren azterketa.**

S-4 “Txagañeta” eremuari eragiten dion Arau Subsidiarioetako Aldaketa espediente honen helburua ez da industrial lurzoru berria sortzea, baizik eta –



Usurbilgo Udala



alderantziz – eremuko zati bati sailkapena kentzea du helburu, eraikigarritasuna txikituz.

Zentzu honetan, Euskadiko Lurzoruaren Legeak 4. artikuluan – zehazki 3. ataleko f) atalean – administrazioei hirigintza-planetak aurreikuspenak betetzera behartzen die. Hori dela eta, Aldaketa espediente honetan Arau Subsidiarioak Atxaga Pescados y Mariscos S.A enpresari onartzen dizkion eskubideak babestu nahi dira, eta era berean, alegatzaileak behin eta berriro eskatu duten moduan, industrial eremua txikitu nahi da, alegatzaileek duten nekazal uztiapena babesteko.

Eraikinaren sekzioei inguruko informazioari dagokionez, aspektu hau udal arkitektoaren txostenean jaso beharko da.

Alegazioaren azken atal honetan ere, agiria berriro ere jendaurrean jartzea edo bestela, honen ordez, alegatzaileei entzutea eskatzen da.

Arau Subsidiarioek aldatzeko prozedura Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 90 artikuluan xedatzen da, adieraziz, agiria behin behineko izaeraz onartu eta jendaurrean jarri ondoren, berriro ere jendaurrean jarriko dela, **hasierako izaeraz onartutako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen bada.**

Kasu zehatz honetan, eraiki nahi den eraikinak izango dituen sekzioei buruzko informazio gehigarria eskatzen da, baina parametro honek EZ dio oinarrizko antolamenduari eragiten, eta ez da ere, planeamendu orokorreko zehaztapen bat.

Ondorioz, eta kontuan hartu gabe udal arkitektoak beharrezkotzat har ditzakeela eraikuntzaren sekzioen inguruko informazio osagarria ematea, juridikoki ez da beharrezkoa ikusten espedientea – berriro ere – jendaurrean jartzea, eta era berean, ez da beharrezkoa izango entzuteko epea edo audientzia-epe bat irekitzea.

Hori dela eta, txosten honek aztertzen dituen alegazioen alderdiak ez onartzea PROPOSATZEN da.

Donostian, 2014ko urtarrilaren 22an.

Izpta.- Nekane Azarola Martínez  
ARAUDI SLP

### **MUGIKORTASUNeko ETA BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMentuAREN TXOSTENA.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Zuzendari Nagusiak, Joseba Altube Moyuak, 2014ko otsailaren 8an eman du beraien txostena. Hitzez hitz honela dio:

**USURBILGO S-4 TXAGAÑETA SEKTOREKO HIRI ANTOLAKETA ARAUEN ALDAKETA PUNTUALARI BURUZKO IRIZPENA**



Usurbilgo Udala



Usurbilgo Udalak Txagañeta S-4 sektoreari dagokion Hiri Antolaketako Arauen aldaketa bidali du, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak irizpena eman dezan, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuak, 2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arauemaileaz onartuak, 94. artikuluan agintzen duena betez.

Usurbilgo Hiri Antolaketako Arauetan, industria erabilerako urbanizagarritzat jotzen da sektorea. Aginagan, N-634 errepidearen ezker aldean dago, 7,100 k.p.an, gaur egun biribilgune zatitua dagoen tokian, hain zuzen. Sektorea forma angeluzuzen nabarmena duen lur-zerrenda da eta honela dago mugatuta: ekialdean N-634 errepidea du, mendebaldean Oria ibaiertzeko baratzak eta berotegiak, hegoaldean industri pabiloi bat eta Angulas Mayoz enpresa, eta iparraldean Izarraitz eta Lertxundi izeneko etxebizitza-erakinak. Sektorea urbanizatu gabe dago, ekialdeko ertz edo mugan izan ezik, hortik N-634 errepideak itsatsita daraman espaloia igarotzen baita. Alde horretan, sektorearen mugak aurreko bizitegi-zonara iristeko biribilgune erdibitua inguratzen du. Gaur egun, lurra nekazaritzarako erabiltzen dira.

Lursailen jabeen desadostasunak direla eta, sektorea ezin izan da garatu, nahiz eta alderdietako batek interes handia izan pabiloi bat eraikitzeko, bere industria jardura garatzeko izango bailitzateke. Egoera desblokeatzeko asmoz, Udalak aldaketa sustatzen du, helburu hauek lortuko bailirateke: eremua murriztea; lurzoru batzuk desklasifikatzea, halen nekazaritza erabilera errespetatzeko; nahi den industria eraikina egin ahal izatea; eta bide berri bat egitea, pabiloi horri zerbitzua emateaz gain, inguruko eraikinen irisgarritasuna hobetuko lukeena.

Proposamenaren arabera sarbide berri bat sortzen da, biribilgune zatitutik abiatzen dena. Errepidetik gertueneko lur-zatian, gune eraikigarri bat mugatu da, eta galtzadatik hamar metrora izango luke lerrokadura. N-634 errepidearekin muga egiten bide bat, berdegune publikoak, eta ekipamenduetarako lur-zati bat.

Agiria aztertu ondoren, Departamentuaren eskumeneko gaietara dagokienez, ez dugu eragozpenik ikusten onarpena emateko.

PLANGINTZA ETA USTIAPEN UNITATEKO BURUA  
Jesús Maguregi Arregui

Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko Bide Azpiegituretako zuzendari nagusiak bere egiten du irizpen hau, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuak, 2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emaileaz onartuak, 94. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Donostia, 2014ko urtarrilaren 8a  
BIDE AZPIEGITURETAKO ZUZENDARI NAGUSIA  
Joseba Altube Moyua

## **ALEGAZIOEN INGURUKO TXOSTEN TEKNIKOA**



Usurbilgo Udala

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, hasierako onespenerako dokumentuari aurkeztutako alegazioak aztertu ostean, 2014ko otsailaren 11ean ondoko txostena eman du:

EE2014\_01\_005

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate jaunari**  
**PLANEAMENDUA**  
**HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIETAKO TESTU**  
**BATEGINAREN ALDAKETA PUNTUALA S-4 TXAGAÑETA SEKTOREAREN**  
**HASIERAKO ONESPENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI TXOSTENA**

---

KOKAPENA: S-4 TXAGAÑETA sektorea, Aginaga auzoa, Usurbil  
ALEGAZIOAK; 1. alegazioa; Joaquin Achega Aizpurua (2013-12-05)  
2. alegazioa; Miren Maioz eta beste batzuk (2013-12-05)  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ01/2011-0013

---

**1. AURREKARIAK:** (ikus espedientean zehatzago)

- 2013ko urriaren 16an behean izenpetzen duen udal teknikariak eta Nekane Azarola udal aholkularitza juridikoak Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarietako Testu Bateginaren Aldaketa Puntuala S-4 Txagañeta Sektorearen dokumentua erredaktatu zuten.
- 2013ko urriaren 17an udal idazkariak lege txostena idatzi zion.
- 2013ko urriaren 29an Plenoaren erabakia Aldaketa Puntuala haseraz onartuz eta jendaurrean jarriz hilabeteko epean. GAO-n 2013-11-05 (210-zbkia).
- Iragakariak: GARA (2013-11-01), DV (2013-11-05).
- 2013ko abenduaren 5ean Joaquin Achega Aizpuruak alegazioa aurkeztu zuen.
- 2013ko abenduaren 10ean Miren Maioz Rekondo eta beste batzuk alegazioa aurkeztu zuten.
- 2014ko urtarrilaren 22an Nekane Azarola udal aholkulari juridikoak alegazioei txostena idatzi zien eta bertan, zenbait puntu udal arkitektoaren txostenera bideratzen zituen.
- 2014ko otsailaren 10ean Errepide Sailaren ALDEKO txostena jaso da Udalean.

**2. TXOSTENA:**

Txosten honen helburua Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Testu Bateginaren Aldaketa Puntuala S-4 Txagañeta Sektorea dokumentuaren hasierako onespenerari aurkeztutako alegazioei erantzutea da.

Nekane Azarola udal aholkulari juridikoak alegazioei egindako bere txostenean zenbait puntu udal arkitektoaren txostenera bideratzen zituen eta beraz, txosten honek horiek aztertu eta erantzuten ditu.



Usurbilgo Udala

## 2.1. LEHENENGO ALEGAZIOA:

Joaquín Achega Aizpurua jaunak alegazio aurkeztu dio 2013ko abenduaren 5eko dataz Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Testu Bateginaren Aldaketa Puntuala S-4 Txagañeta Sektorea dokumentuaren haserako onespenerari.

Aurkeztu dokumentazioa lau orriko idatziak osatzen du.

### 2.1.1. ALEGAZIOAREN EDUKIA ETA AZTERKETA:

Joquin Achega Aizpurua-ren alegazioa bost puntutan egituratzen da. Lehen eta bosgarren puntuak Nekane Azarola udal aholkulari juridikoak erantzun ditu, beste hirurak udal arkitektoaren txostenera bideratzen dituelarik. beraz, bigarren hirugarren eta laugarren puntuen erantzuna emango da hemen.

#### 1. Sektorearen mugaketa.

Alegazioaren lehendabiziko atala sektorearen mugaketari buruzkoa da, non honakoa azaltzen den: *“la ordenación planteada por el Ayuntamiento de Usurbil, obliga a ocupar suelo externo, de otra titularidad con carácter transitorio, a fin de ejecutar las obras de urbanización, lo cual puede suponer ciertos problemas.*

*Esta ocupación externa se pretendía evitar por esta parte, en lo que respecta a límite oeste, mediante un retranqueo – imagen adjunta.”*

Puntu hau Nekane Azarola udal aholkulari juridikoak bere txostenean erantzun duen arren, behean izenpetzen duen teknikariak, gaiaren inguruan ondoren azaltzen dena zehaztu nahi du.

Dokumentuaren memorian azaltzen den bezala, sektorearen mugaketa eta berrantolaketa indarrean den 2/2006 Lurzoruaren Legeak ezarritako estandarrak eta Jarduera Ekonomikoetarak Lurzorua Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana beteaz egin da, horrekin batera, lurren jabekideek aurrez egindako eskakizunak aintzat hartuta:

- alde batetik, S-4 eremuko zati bati sailkapena kentzea, ondorioz sektorea murriztuz Lertxundi eta Izarraitz baserrietako jabeek behin eta berriro egindako eskaera betetzearren (beren lursailen nekazaritza erabilera mantentzea, alegia). Horrekin batera, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateginak ezartzen dituen ondare baldintzak errespetatuz eta jabekide hauen eskakizunei erantzunaz, karobia mantendu eta haren inguruan babes gunea sortuz.
- bestetik, Pescados y Mariscos Atxega S.A. jabegoari bere jarduera handitzeko pabiloia eraikitzeo aukera ematea, S-4 sektorearen sailkapena eta izaera industrial mantenduz beste zatian.

Baldintza hauen betetzeak eta Aginaga hirigintza aldetik hobetzeko egin den ahaleginak ekarri duen emaitza izan da dokumentuan aurkeztu den antolamendua eta mugaketa. Aholkulari juridikoak bere txostenean esaten duen bezala, jabetza pribatuko bateko edo besteko metro batzuk hartzea ez da



Usurbilgo Udala

erabakigarria izan sektorearen mugaketarako eta bai, aldiz, goian aipatu diren baldintza eta araudien betetzea.

Interesatuak alegazioan gaineratzen du, Udalak dokumentuan jaso duen sektorearen mugaketa bere egikaritzarako behin behineko izaeraz beste jabetzakoa eta sektoretik kanpo gelditzen diren lurak hartzera behartzen duela. Ez dute horren justifikazio tekniko zehatzik aurkezten eta aldiz, sektorearen beste mugaketa bat proposatzen dute.

Behean izenpetzen duenaren iritziz, **ez da eragozpen hau argitu eta mugaketa berria beharrezkotza jotzen duen justifikazio teknikorik azaldu eta aurkeztu den sektorearen mugaketa proposamenak ez dirudi karobia eta haren babesgunea errespetatzen dituenik (ikus Aldaketa Puntualaren Hirigintza Arauen 20. Artikulua). Alegazioan adierazten dena aztertu eta izapidean den dokumentua ikusita, teknikari honek ez du berariazko arazorik ikusten, beste edozein sektorearen garapenean egin izan den moduan, urbanizazio eta eraikitze lanak sektore beraren barnetik egikaritzeko sektorearen mugaraino. Sektoretik kanpo eraginik izatekotan, behin behinekoa eta gutxienekoa dirudi.**

**Edonola, 2/2006 Lurzoruaren Legeak behin behineko izaeraz egin beharreko okupaziorako baliabideak finkatzen ditu eta hala beharko balitz, haiek jarrai litezke.**

Guzti hau dela eta, **alegazioaren puntu hau EZ ONARTZEA proposatzen da. Halere, hurrengo puntuei erantzunaz onartu diren aldaketek sektorearen beraren egikaritza erraztu dezakete gai honen mesedetan.**

## 2. Aprobetxamendua.

Haseraz onartu den Aldaketa dokumentuak oin-okupazio zehatza ematen du eta alegazioan esaten denez, honek eraikuntzaren eta jardueraren beste aukera batzuk oztopatzen ditu. Gutxieneko azalera baino perimetro malguagoa ez izateak ez du beste aukerarik uzten diotenez.

Honen inguruan esan beharra dago, **lehen puntuan aipatu diren baldintza guztien emaitza izan dela sektorearen mugaketa/antolaketa eta ondorioz, oin-okupazioa. Aldaketa dokumentuak barneratzen duen antolamenduak legeak ezarritako estandareen betetzea justifikatu behar du eta horretarako, sektorearen azaleraren ondorioz, ezinbestean 1600 m<sup>2</sup>-ko oin okupazio gutxienekoa bete behar da, besteren artean. Oin-okupazio gutxieneko hori behe solairuan betetzen da berau bermatzeko derrigorrezko lerrokadura ezarri delarik. Aldiz, eraikin industrialaren eraikigarritasun osoa oin-okupazio gutxieneko hori baino handiagoa da, lehen solairua ezarri diren lerrokadura gehiengoarekin 1.000 m<sup>2</sup> gehiago eraikitzea ahalbidetzen delarik. Alegazioan aipatzen den “malgutasan”-a lehen solairuko aukerako 1000 m<sup>2</sup>-ko azalera gehiengoak eman lezake, aipatu bezala, lehen solairuko lerrokadura horiek gehiengoak eta ez derrigorrezkoak izanik.**

**Beraz, alegazioaren puntu hau EZ ONARTZEA proposatzen da.**



Usurbilgo Udala

### 3. Aparkalekuak.

Haserako onespina jaso duen dokumentuak aparkaleku plazen kokapen orientagarria barneratzen du. Alegazioan esaten denez, aparkaleku plazen izaera orientagarri hori garrantzitsua da izan ere, 1-11 plazen kokapena ez da bateragarria Eraikin Industrialetan Suteen Babeserako Segurtasunaren Erregelamenduak ezartzen duenarekin. Bestetik, 18, 19 eta 20, zenbakidun aparkalekuek ibilgailuen maniobra oztopatzen dutela diote.

Alegazioan bertan esaten den moduan, Aldaketa dokumentuan marraztu diren aparkalekuek izaera orientagarria dute eta interesatuekin aurrez egindako bileretan hitzegin bezala, aparkaleku plazak eraikin barnean ezartzea ere onargarria izan liteke.

Halere, **alegazioaren puntu honi erantzunaz, Eraikin Industrialetan Suteen Babeserako Segurtasunaren Erregelamenduarekin kontraesanik egon ez dadin eta edonola, gaizki-ulertuak saihesteko, alegazioaren puntu hau ONARTZEA proposatzen da, beti ere aparkaleku plazen izaera orientagarria mantenduz eta honako aldaketak barneratuz:**

- **Eraikinaren behe solairuan mendebaldeko altxaera 2,5 metro atzeratzea, honela, aparkaleku plazen eta eraikinaren artean 5 m-ko pasabidea utziaz. Noski, honek oin-okupazio gutxienekoa betetzeko lerrokaduraren egokitzapena ekarri du ekialdeko altxaeran.**
- **17,18,19 eta 20 zenbakidun aparkaleku plazak kokapenez aldatzea, ibilgailuen maniobra ez oztopatzeko.**
- **Edonola, marraztu diren aparkaleku plazen izaera orientagarria da eta legeak ezartzen duen aparkaleku kopurua lursailaren beste kokapen batean ezarri liteke, beti ere indarrean den araudia beteaz, bai eraikinaren barnean edota kanpoan ere.**

### 4. Eraikuntzaren baldintzak.

#### 4.1. Lerrokadurak.

Alegazioaren puntu honetan esaten denez, haserako onespina jaso duen dokumentuak derrigorrezko lerrokadurak ezartzen ditu eta horrek arazoak sortzen ditu: hego-mendebaldeko altxaera parean ibilgailuen maniobrarako eta baita Eraikin Industrialetan Suteen Babeserako Segurtasunaren Erregelamendua betetzeko.

**Alegazioaren puntu hau erantzunda ematen da aurreko puntuaren onarpenarekin eta horrek ekarri dituen aldaketekin.**

#### 4.2. Sestrak.

Alegazioaren puntu honetan esaten denez, Aldaketa dokumentuak barneratzen dituen sestrek (+15,30 lursailaren barnean lehen solairuari dagokionean eta +12,30 behe solairuari dagokionean) arazoak ekar litezake; behe solairuan sektorez kanpoko sestrarekiko gorago egonik eta lehen





Usurbilgo Udala



solairuan kanpo biribilgunea baino beheragoko sestra izanik. Hori dela-eta, hurrenez hurren, +15,65 eta + 12,00 sestrak proposatzen dituzte.

**Eskaera aztertuta, behean izenpetzen duen teknikariaren iritziz, alegazioaren puntu hau ONARTZEA proposatzen da. Edonola, dokumentazio topografiko zehatzagoen ezean, behe solairuan alboko lurzoru ez-urbanizagarriaren pareko sestra gomendatzen da eta lehen solairuan, kanpo biribilgunearen parekoa. Sestren zenbaki zehatz horietan akatsik balego, irizpide hau jarraitu beharko da.**

#### 5. Erabilerak.

Haserako onespina jaso duen dokumentuan, eraikin industrialean jarduera bakarria finkatzen da, banaezina eta kokatzen den lursailari lotetsia. Alegazioan adierazten da bi edo empresa gehiagoren jarduerak eman ezin badira, honek zuzenean jardueraren empresa kudeaketan eragiten duela. **Nekane Azarola udal aholkulariak eman du bere txostenean puntu honen erantzuna eta behean izenpetzen duen udal teknikaria bat dator berarekin.**

Horrekin batera, gaineratu nahi nuke, pabiloi industrialean jarduera bakarria baino gehiago ezartzeak antolamenduaren egokitzapena ekarriko lukela funtsezko aldaketekin; lursailaren banaketarekin batera jarduera bakoitzerako sarbidea, ibilgailuen maniobrarako guneen egokitzapena eta aparkaleku plazen berrantolaketa. Aldaketa dokumentuak jaso duen antolamenduak, indarrean diren Arau Subsidiarioen Testu Bateginak S-4 sektorerako ezartzen duen jarduera bakarreko pabiloi bat mantentzen du eta hartara egokitu da Aldaketa dokumentu hau.

Beraz, **alegazioaren puntu hau EZ ONARTZEA** proposatzen da.

### **2.2. BIGARREN ALEGAZIOA:**

Miren Maioz andereak, Manuel Begiristain Azumendi jaunak, Xavier Begiristain Azurmendi jaunak, José Mari Eizagirre Aranguren jaunak, Jose Miguel Beguiristain Azurmendi jaunak, Maria del Coro Otegui Galarkin andereak, Ainhoa Begiristain Otegi andereak, Iratxe Begiristain Otegi andereak eta Maria Dolores Beguiristain Azurmendi andereak alegazioa aurkeztu diote 2013ko abenduaren 10eko dataz Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Testu Bateginaren Aldaketa Puntuala S-4 Txagañeta Sektorea dokumentuaren haserako onespinari.

#### **2.2.1. ALEGAZIOAREN EDUKIA ETA AZTERKETA:**

Alegazioa bi puntutan egituratzen da:

##### 1. Erabilera industrialaren inguruan.

Idatzian adierazten denez, lehenago azaldu izan duten moduan, Aldaketak eragiten dien hainbat lursailen jabe dira, lursail horiek nekazal jarduera intentsibo erabilera dute eta udalherrian erabilera industrialak duten lurzoru berrien beharrik ez dago. **Nekane Azarola udal aholkulariak eman du**



Usurbilgo Udala

**bere txostenean puntu honen erantzuna eta behean izenpetzen duen udal teknikaria bat dator berarekin.**

- Hainbat zehaztapenen definizioan hutsuneak.

Alegazioaren puntu honetan esaten denez, defizientziak topatu dira Aldaketa dokumentuan; alde batetik, lurzoru urbanizagarri eta ez urbanizagarriaren arteko muga ez da transizio gunerik ezarri eta muga horretan, lurzoru urbanizagarrian aparkaleku ilara jarri da. Bestetik, antolamenduaren ebakidurak jasotzen dituzten planuak falta direla esaten da, bai eraikinaren barne eta kanpo altuerak argituko dituen, eraikinak inguruko lursailetan eragingo duen itzala konprobatzeko. Azkenik, Aldaketa Puntualaren dokumentuak eraikinaren altuera igotzeko ematen duen aukera kentzea eskatzen dute.

Alegazioaren puntu honi erantzunaz, lehenik eta behin esan beharra dago, **indarrean diren Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidaioren Testu Bateginak ez duela lurzoru urbanizagarria eta ez urbanizagarriaren arteko muga transizio guneak ezartzeko baldintzarik jartzen eta edonola, itxiturak jarri nahi izatekotan, dokumentuaren “IV.- Antolamendu Xehakatuaren Hirigintza Erregimena” 4.2.2.3. atalean finkatutako irizpideak jarraitu beharko direla, horretarako berariezko baimena jasoaz. Horrekin batera, planuetan ezarri den aparkaleku ilara orientagarria dela ohartarazten da.**

Bigarren, Indarrean diren Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren S-4 sektorearen hirigintza fitxak ez du eraikinaren ebakidurarik jasotzen eta izapidean den dokumentu hau haren Aldaketa izanik, ez da beharrezkotzat jo ebakidurak barneratzea. Hirigintza fitxak ezartzen duen bezala; *“eraikuntzaren gehienko altuera 7,5 m-koa izango da, beti ere lehen solairu sarbide den kanpo zabalguneez lautadaren sestratik altxaeraren akaberara (altxaeraren erdi puntuan), hau da, N-634-ra ematen duen altxaeran”*. Halere, eskaerari erantzunaz ebakidura planu orientagarria gehitzea posible da.

**Alegazioan eraikinak alboko lursailetan eragin dezakeen itzala aipatzen da eta horren inguruan, ohartarazi beharra dago, alde batetik, Aldaketa dokumentuaren antolamenduak egun indarrean den S-4 sektorearen antolamenduak baino askoz okupazio eta ondorioz, itzal gutxiago eragiten duela. Gainera, txosten honetan bertan proposatzen den eraikinaren hego-mendebaldeko altxaera 2,5 m atzeratzeak itzala beste hainbeste atzeratzea dakar. Beraz, Aldaketaren helburua itzala gutxitzea izan ez bada ere, azken finean, sektorearen berrantolaketa eta alegazioen ondorioz proposatutako egokitzapenek ezinbestean ondorio hori ekarri duela esan genezake.**

Azkenik, eraikinaren altuera igotzeko ematen den aukera kentzeko eskaeraren inguruan, esan beharra dago, zentzu horretan irizpidea hirigintza fitxak aurrez finkatzen zuena mantentzea izan dela, Aldaketa honen helburua ez baita pabiloiaren altuera aldatzea izan.

S-6 Hirigintza fitxak dio;



Usurbilgo Udala

*“Eraikuntzaren gehieneko altuera 7,5 mkoa izango da, (...). Altuera haundiago beharrezkoa balitz, garatzen den ihardueraren ezaugarriengatik berariazko justifikapen teknikoa beharrezkoa izango da, Udal Zerbitzu Teknikoen onespenerekin batera.”*

Bestetik, 2/2006 Lurzoruaren Legearen 73. artikulua arabera, Xehetasun Azterlanen izapidetzearen bidez honakoa onar daiteke:

*“b) Bolumenak dena delako plangintza aurreikusitakoaren arabera antolatzea.”*

Beraz, indarrean den Lurzoruaren Legearen arabera, 7,5 m baino altuera haundiagoak onartzea posible litzateke, beti ere, aipatu dokumentua onartuko balitz. Haren izapidetzean onartu edo ukatu beharko litzateke altuera haundiago baten beharra eta baita, baimentzen den altuera zehatza ere. Ondorioz, indarrean den legeari jarraituz, fitxa honela osa daiteke: *“(…) Altuera haundiagoa beharrezkoa balitz garatzen den ihardueraren ezaugarriengatik, berariazko justifikapen teknikoa beharrezkoa izango da Xehetasun Azterlan baten izapidetzearen baitan.”*

Edonola, behean izenpetzen duen teknikariak, planeamenduaren fase honetan ez du nahikoa datu edo justifikazio teknikorik ikusten alegazioan aipatzen den baldintza hori kentzea edota mantentzea beharrezkoa den ziurtatzeko. Horregatik, egin beharrezko oharrak egin ostean, ebazpena udal ordezkarien esku uzten da.

Beraz, alegazioaren puntu hau **PARTZIALKI ONARTZEA** proposatzen da, aipatutako zehaztapenekin eta ondorioz, ebakiduren planu orientagarria gehituz.

---

### 3. ONDORIOAK:

Goian zehazki aipatu den bezala, aurkeztu alegazioak **PARTZIALKI ONARTZEA** proposatzen da, horretarako, haserako onspena jaso duen dokumentuan honako aldaketak barneratuz:

- a) Antolamendu xehakatuaren planuetan honako aldaketak (8., 9., 10., 11. eta 11.b planuak) egitea:
  - a) Eraikinaren behe solairuan mendebaldeko altxaera 2,5 metro atzeratzea, honela, aparkaleku plazen eta eraikinaren artean 5 m-ko pasabidea utziaz. Noski, honek oin-okupazio gutxienekoa betetzeko lerrokaduraren egokitzapena ekarri du ekialdeko altxaeran.
  - b) 17, 18, 19 eta 20 zenbakidun aparkaleku plazak kokapenez aldatzea, ibilgailuen maniobra ez oztopatzeke.
  - c) Edonola, marraztu diren aparkaleku plazen izaera orientagarria da eta legeak ezartzen duen aparkaleku



Usurbilgo Udala



kopurua lursailaren beste kokapen batean ezarri liteke, beti ere indarrean den araudia beteaz, bai eraikinaren barnean edota kanpoan ere.

- d) Lehen solairuaren kanpo sestra +15,65 eta behe solairuaren kanpo sestra +12,00 finkatzea, beti ere, datu topografiko zehatzagorik ezean. Hau da, irizpidea honakoa izango da: behe solairuan alboko lurzoru ez-urbanizagarriaren pareko sestra gomendatzen da (ez beheagorik) eta lehen solairuan, kanpo biribilgunearen parekoa (ez altuagorik). Sestren zenbaki zehatz horietan akatsik balego, irizpide hau jarraitu beharko da.

- e) Ebakiduren planu orientagarria gehitzea (11.b Planua)

- b) 11. planuan aurkitutako akatsak zuzendu dira.

Guzti hau dela-eta, Nekane Azarola aholkulari juridikoaren txostena eta Errepide Sailaren ALDEKO txostena ikusirik, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Testu Bateginaren Aldaketa Puntuala S-4 Txagañeta Sektorea dokumentuaren behin behineko onespenerari ALDEKO txostena idazten zaio, beti ere goian aipatutako baldintzapean.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2014ko otsailaren 11 ean  
UDAL ARKITEKTOA  
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

## **ERAIKUNTZAREN ALTUERA**

Udal arkitektoaren, Ekhiñe Egiguren Azkune anderearen, txostena irakurri eta aztertu ostean, udal gobernu taldeak, eraikuntzaren altuerari dagokionez, sektoreko ezaugarrien fitxan 7,5 m baino handiagoa onartzeko aukera aurreikustea hobetsi du. Hala sektoreko ezaugarrien fitxako *eraikuntzaren baldintzak* atala aldatuko da ondoko irizpidearen arabera:

*Altuera haundiagoa beharrezkoa balitz garatzen den ihardueraren ezaugarriengatik, berariazko justifikapen teknikoa beharrezkoa izango da Xehetasun Azterlan baten izapidetzearen baitan.*

## **DOKUMENTU TEKNIKOA**

Udal gobernu taldearen iritzia ezagutu ondoren, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eta udal aholkulari juridikoak, Nekane Azarola Martínez andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko



Usurbilgo Udala

Ezaugarri Fitxaren Aldaketa (10 Aldaketa) Puntualaren dokumentua ondoko irizpideen arabera egokitu dute:

- Antolamendu xehakatuaren planuetan honako aldaketak (8., 9., 10., 11. eta 11.b planuak) egitea:
  - Eraikinaren behe solairuan mendebaldeko altxaera 2,5 metro atzeratzea, honela, aparkaleku plazen eta eraikinaren artean 5 m-ko pasabidea utziaz. Noski, honek oin-okupazio gutxienekoa betetzeko lerrokaduraren egokitzapena ekarri du ekialdeko altxaeran.
  - 17, 18, 19 eta 20 zenbakidun aparkaleku plazak kokapenez aldatzea, ibilgailuen maniobra ez oztopatzeko.
  - Edonola, marraztu diren aparkaleku plazen izaera orientagarria da eta legeak ezartzen duen aparkaleku kopurua lursailaren beste kokapen batean ezarri liteke, beti ere indarrean den araudia beteaz, bai eraikinaren barnean edota kanpoan ere.
  - Lehen solairuaren kanpo sestra +15,65 eta behe solairuaren kanpo sestra +12,00 finkatzea, beti ere, datu topografiko zehatzagorik ezean. Hau da, irizpidea honakoa izango da: behe solairuan alboko lurzoru ez-urbanizagarriaren pareko sestra gomendatzen da (ez beheragorik) eta lehen solairuan, kanpo biribilgunearen parekoa (ez altuagorik). Sestren zenbaki zehatz horietan akatsik balego, irizpide hau jarraitu beharko da.
  - Ebakiduren planu orientagarria gehitzea (11.b Planua)
- 11. planuan aurkitutako akatsak zuzentzea.
- Eraikuntzaren altuerari dagokionez, sektoreko ezaugarrien fitxan 7,5 m baino handiagoa onartzeko aukera aurreikusi da:

*Altuera haundiagoa beharrezkoa balitz garatzen den ihardueraren ezaugarriengatik, berariazko justifikapen teknikoa beharrezkoa izango da Xehetasun Azterlan baten izapidetzearen baitan.*

## **LEGE-TXOSTENA**

Udal idazkariak, Nagore Sarasola Otermin andereak, dokumentazio aztertu ostean ondoko txostena eman du:

### **LEGE-TXOSTENA**

**GAIA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntualaren behin behingo onarpenerako txostena.



Usurbilgo Udala

## AURREKARIAK

- Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntualaren haserako onarpenaren aurretik espedientea osatzeko idazkari honek 2013ko urriaren 17an landutako txostenean jasotakoak (ikusi txostena).
- 2013ko urriaren 29an Plenoaren erabakia gehiengo osoz Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntuala hasieraz onartuz eta jendaurrean jarriz hilabeteko epean (GAO 2013-11-05). Gainera ondorengo iragarkiak BERRIA (2012-11-01), GARA (2013-11-01) eta DV (2013-11-05).
- 2013ko abenduaren 5ean (4204 sarrera zenb.) Joaquin Achega Aizpuruak alegazioa aurkeztu zuen.
- 2013ko abenduaren 10ean (4259 sarrera zenb.) Miren Maioz Rekondo eta beste batzuk alegazioa aurkeztu zuten.
- 2014ko urtarrilaren 22an Araudi SLP taldeko Nekane Azarola hirigintzako aholkulari juridikoaren txostena alegazioen alderdi juridikoei erantzunez.
- 2014ko otsailaren 11n Ekhiñe Egiuren udal arkitektoaren txosten teknikoa alegazioen alderdi teknikoei erantzunez.
- 2014ko otsailaren 10ean Errepide Sailaren ALDEKO txostena jaso da udalean.
- Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntualaren dokumentu egokitua (Ekhiñe Egiuren udal arkitektoak eta Araudi SLP taldeko Nekane Azarolak landua)

## TXOSTENA

Txosten honen helburua Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntualaren dokumentuari behin behingo onarpena eman aurretik espedientea legez beharrezkoa den idazkariaren txostenaren bidez osatzea da.

Ikusirik Araudi SLPko Nekane Azarola hirigintzako aholkulari juridikoaren **2014ko urtarrilaren 22ko txosten juridikoa** Hiri Antolamenduko AASSetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntualaren haserako onespenerari aurkeztutako alegazioen azterketa juridikoari dagokionean, **idazkari honek bere egiten du bertan adierazitakoa**, irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren 3. artikuluko b) atalaren baitan, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2.c) eta 47.2.ii) artikuluetan, eta apirilaren 18ko 781/86 Errege-Dekretu Legegilearen 54.1.b) artikuluan xedaturikoa betetzeko.

Espedientea aztertu ondoren, bereziki Aldaketa Puntualaren haserako onarpenaren aurrean tarteratutako alegazioak, 2014ko urtarrilaren 22ko txosten juridikoa alegazioen alderdi juridikoei erantzunez, udal arkitektoak alegazioetan planteatzen diren alderdi teknikoen inguruan landutako 2014ko otsailaren 11ko txosten teknikoa eta bi txosten hauen ondorioz udal arkitektoak zein Araudi SLP taldeko aholkulari juridikoa egokitu duten Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntualaren dokumentua, Udal Osoko bilkurari proposatzen zaio Aldaketa Puntualaren izapidetzarekin aurrera jarraitzea 2013ko urriaren 17ko lege txostenean zehaztatutako izapideak burutuz eta beraz **akordio hauek har ditzan proposatzen zaio Udal Osoko bilkurari:**



Usurbilgo Udala



“LEHENENGO: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa (10 Aldaketa) Puntualaren hasierako onespenerako dokumentuari aurkezturiko alegazioak honelaxe erantzutea:

1. 1. alegazioa

Interesatua: Joaquin Achega Aizpurua

Alegazioa PARTZIALKI AINTZAT HARTZEA udal teknikariek egindako txostenean zehaztutako eran.

2. 2. alegazioa

Interesatua: Miren Maioz Rekondo eta beste batzuk

Alegazioa PARTZIALKI AINTZAT HARTZEA udal teknikariek egindako txostenean zehaztutako eran eta udal gobernu taldeak emandako irizpideen arabera.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa (10 Aldaketa) Puntualari BEHIN BEHINGO onspena ematea, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eta udal aholkulari juridikoak, Nekane Azarola Martínez andereak, aurkeztutako dokumentu berriaren arabera.

HIRUGARRENA: Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera igortzea, Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualari dagokion txostena egin diezaion.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei jakinaraztea.”

Espedientearen izapidetzarekiko gogorarazten da Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntualaren hasierako onarpenerako idazkari honek 2013ko urriaren 17an izenpetutako lege-txostenean jasotakoarekin bat eginez, Usurbilgo Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarrien Fitxaren Aldaketa Puntualaren hasierako onarpenaren inguruko alegazioak erantzutea eta hauek partzialki onartzeak dakarren dokumentu egokituari behin behingo onarpena ematea, Udalbatza Osoari dagokiola gehiengo osoz.

Usurbilen, 2014ko otsailak 12

Udal Idazkariak

**Nagore Sarasola Otermin**

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2013ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Mertxe Aizpurua, Jone Urdanpilleta eta Eustakio Arrojeriaren aldeko botoekin, eta Luis Mari Ormaetxearen abstentzioarekin, gehiengo onartutako erizpena kontutan hartuta, Udalbatza Plenoak honako erabakia hartu du gehiengo osoz:

## ERABAKIA

**LEHENENGO:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa (10 Aldaketa) Puntualaren hasierako onespenerako dokumentuari aurkezturiko alegazioak honelaxe erantzutea:



Usurbilgo Udala

- 1. alegazioa

Interesatua: Joaquin Achea Aizpurua

Alegazioa PARTZIALKI AINTZAT HARTZEA udal teknikariek egindako txostenean zehaztutako eran.

- 2. alegazioa

Interesatua: Miren Maioz Rekondo eta beste batzuk

Alegazioa PARTZIALKI AINTZAT HARTZEA udal teknikariek egindako txostenean zehaztutako eran eta udal gobernu taldeak emandako irizpideen arabera.

**BIGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa (10 Aldaketa) Puntualari BEHIN BEHINGO onespena ematea, udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, eta udal aholkulari juridikoak, Nekane Azarola Martínez andereak, aurkeztutako dokumentu berriaren arabera.

**HIRUGARRENA:** Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera igortzea, Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualari dagokion txostena egin diezaion.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuei jakinaraztea.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Abstentzioa: Luismari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera.

Beraz, diktamena gehiengo osoz onartua izan da.

## **5.- MENDEKOTASUN PREBENTZIORAKO USURBILGO I. UDAL PLANA (2013-2017) ONARTZEA.**

Jone Urdanpilletak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu: “Gaur onartzera dakarkigun Mendekotasun Prebentziorako Usurbilgo I. Udal Plana batzordetik diktaminatuta dator, eta aurrerantzean eskura izango dugun dokumentu honen helburua, 2013 eta 2017 urte bitartean udalerrian mendekotasunaren prebentzioa





Usurbilgo Udala

sustatzeko burutu beharreko ekintzak zehaztea eta burutzen joatea da. Mendekotasun Prebentzioaren eremuan, tresna baliagarri bat izango dela uste dugu.

Orain artean erakundeetan eremu hau jorratzerakoan sustantzia legal nahiz ilegalen kontsumoaren prebentziorako estrategiak eta ekintzak jasotzen zituzten. Orain mendekotasunen arazoa ikuspegi orokor batetik lantzen da eta sustantzia jakin batzuetaz gain, joko edo teknologi berriek sor ditzaketen mendekotasun jarrerari erreparatzen zaie.

Dokumentuaren osaketa Gizarte Zerbitzuetatik bideratu da, eta batzordeaz gain, herriko ikastetxe, anbulategi eta eragile sozial desberdineei aurkeztu eta beraien ekarpenak jasotzeko aukera izan da.

Planaren edukia atal desberdinez osatua dago, drogen inguruko hausnarketa egiten da, lege esparrua kontutan izan da, eremu teorikoa, egoeraren diagnosi orokorra jasotzen da, herriko ikastetxean egindako inkestaren emaitzak jasotzen dira, esku-hartzea bideratzeko proiektuak edo ekintzak jasotzen dira eta azkenik planaren ebaluazioa eta inplementazioa jasotzen da.

Mendekotasun eremuan eskuhartze eraginkor bat gauzatu ahal izateko garrantzia ematen zaio udal sailen arteko koordinazioari, esate baterako hezkuntza edo/eta gazteria.

Ebaluazioari dagokionez, alderdi honi arreta berezia egiteko konpromisoa hartzen da, aurreikusitako proiektu eta ekintzen ebaluazioa egiteaz gain, planaren inplementazio prozesua bera ere ebaluatuko da eta baita planaren amaierako emaitzak ere, etengabeko hobekuntzak exekutatu ahal izateko.

Ekintzei dagokienez, sei proiektutan oinarritzen da dokumentua:

1. Prebentzioa ikastetxetan
2. Guraso edo hezitzaileen formakuntza
3. Eskaintza arduratsuan formakuntza
4. Aisialdi eremuan sentsibilizazioa jorratzea
5. Festetan kontsumo arduratsua sustatzea
6. Teknologia berriak eta mendekotasunen prebentzioa

Eta esan behar da, dokumentua osatu bitartean ekintza jakin batzuk burutu direla eta baita formakuntza saioak jaso ere, irakasle, hezitzaile eta gurasoek.

Hori izango litzake laburbilduta, onartzera ekarri dugun Mendekotasun Prebentziorako I. Udal Plana.”

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzorde Informatzailearen diktamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

### **Aurrekariak**



Usurbilgo Udala



Orain artean, erakundeetan eremu hau jorratzera bideratutako planek sustantzia legal (tabakoa, alkohola, psikofarmakoak...) nahiz ilegalen kontsumoaren prebentziorako estrategiak eta ekintzak jasotzen zituzten. Orain mendekotasunen arazoa ikuspegi orokor batetik lantzen da eta sustantzia jakin batzuetaz gain, jokoaren edota teknologia berriek sor ditzaketen mendekotasun jarrerei ere erreparatzen zaie.

Hau kontutan izanik, Usurbilgo Udalak “Mendekotasunen Prebentziorako Usurbilgo I. Udal Plana “ osatu du.

Plan hau egituratzeko orduan, EAE-ko MENDEKOTASUNEN VI. PLANAn (2011-2015) jasotzen diren jarraibideak eta lan ildoak hartu dira kontutan. Hortaz, Udal planak, 2013 eta 2017 urte bitartean mendekotasunaren prebentzioaren arloan jorratu beharreko proiektuak eta ekintzak jasotzen dira. Udal planaren egiturari dagokionez, atal desberdinak jorratu dira: drogen testuinguruaren hausnarketa, kontutan hartu beharreko lege-esparrua, oinarri teorikoak, egoeraren diagnosis, esku-hartzea bideratzeko proiektuak eta planaren ebaluazioa.

Mendekotasunen eremuan eskuhartze eraginkor bat gauzatu ahal izateko hainbat faktore aintzat hartzeak berebiziko garrantzia du. Horregatik, planaren garapenean udal sailen arteko koordinazioari eta lankidetzari garrantzi berezia emango zaio, esku-hartzearen egokitasuna bermatzeko ezinbesteko alderdia delako. Bestetik, ebaluazioaren alderdia indartu nahi izan da, udal planak jasotzen dituen proiektu eta ekintzen ebaluazioa egiteaz gain, planaren inplementazio prozesua bera ere ebaluatuko da eta baita planaren amaierako emaitzak ere. Honela, etengabeko hobekuntzak proposatu eta exekutatu ahal izango dira eta etorkizuneko esku-hartzeak eraginkortzeaz gain, egonkortzeko baldintzak ere indartuko dira.

Eta guzti hau kontutan izanik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak, 2014ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Mertxe Aizpurua Arzallus, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Josune Urquia Carrera-ren aldeko bozkekin, aho batez, egindako erizpena kontutan hartuta, Udalbatza Plenoak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Mendekotasun Prebentziorako Usurbilgo I. Udal Plana onartzea.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luis mari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, diktamena aho batez onartua izan da.



Usurbilgo Udala

## 6.- GALDERAK, ESKAERAK ETA MOZIOAK.

Luisuari Ormaetxeak adierazi du bi galdera dituela egiteko.

Batetik, duela egun batzuk sarreretan ikusitakoaren arabera, kontu-hartzailtzan aldaketaren bat gertatuko dela ulertu dute eta horren inguruko azalpenak eskatu ditu. Gaineratu du urte honetan oraindik ez dutela ogasuneko batzorderik izan.

Alkateak erantzun dio Liobak azterketa batzuk gainditu dituela eta 2. mailako kontuhartzailtza atera duela.

Idazkariak zehaztu du Lioba 3. mailako idazkari-kontuhartzailea dela, nahiz eta habilitazioa daukanez goragoko eskala batean jarduteko aukera duen. Kasu honetan, 2. mailako kontuhartzailtza prozesua gainditu duela esan du eta, printzipioz, badirudiela beste udal batetara joateko asmoa izango duela. Hori horrela, titularra bueltatzen den bitartean edo habilitazioa duen norbaitekin hornitzen den bitartean, bere ordezkapena egiteko oinarri batzuk onartu direla zehaztu du.

Luisuari Ormaetxeak galdetu du ea bitarte honetan Liobak jarraitzen duen edo bere ordezkapena egiten ari diren.

Erantzun zaio ordezkapena egiten den bitartean printzipioz Lioba egongo dela.

Bestetik, Luisuari Ormaetxeak adierazi du duela sei aste inguru kiroldegian ematen diren hainbat zerbitzuren kontratuak berritu egin direla eta hori egiteko dekretuetan idazkariak sinatzen duela zehaztuz *“a efectos de fe pública”*. Hori horrela egiteko zein arazo dagoen galdetu du.

Idazkariak, hasteko, erantzun dio espedientean kontratazio teknikariak egindako txosten bat dagoela eta berak idazkari bezala ontzat ematen duela.

Jarraitzeko adierazi du hor badaudela kontratazio pare bat zeinetan Euskal Kontuen Epaitegiak ere hainbat gabezia aipatu zituen.

Azaldu du udal honetan kontratuen jarraipena departamentu bakoitzari dagokiola eta garaiz abisatu behar izaten dutela kontratazioa luzatu behar den edo ez, edo lizitazio berri bat atera behar den edo ez esanez. Baina kasu honetan gertatu dena dela dio oraindik kirol sailak bere osotasunean ez duela funtzionatzen behar duen bezala, nahiz eta udalean txertatuta egon erakunde autonomoa desegin zenetik, eta azken momentuan konturatu direla kontratu horien epea amaitu dela eta zerbitzua eman ahal izateko luzatu beharrean aurkitu direla. Hala ere, kontratu horiek berez beraien gabeziak dituztela erakunde autonomoak lizitatu zituenetik esan du eta egokiena izango litzatekeela esan du bere momentuan lizitazio berriak ateratzea. Beraz, luzatu behar izan direla dio baina egoera horrengatik, hau da, zerbitzua ematen jarraitu ahal izateko. Hau guztia horrela, horien legezketasuna bere horretan berak idazkari bezala ezin duela babestu adierazi du. Gaineratu du gabezia guztiak txostenean jasota daudela.



Usurbilgo Udala



## **6.1.- MOZIOA: TÜV RHEINLAND IBERICA S.A. ENPRESAKO LAN GATAZKA, IAT-ITV URNIETA ETA IRUN.**

Alkateak adierazi du autoen azterketa tekniko egiten duen Rheinland Iberica enpresako langileak pleno aretoan daudela eta mozioaren inguruko azalpenak emango dituztela.

Publikotik enpresako langile batek hitza hartu du eta mozioan jasotzen dena azaldu du.

Josu Portuk galdetu dio ea eskatzen dutena zer den, lehen zuten hitzarmena mantentzea?

Publikotik erantzun dute akordio bat bazutela, baina lan-erreforma berriarekin gutun bat bidali ziola enpresak langile bakoitzari esanez eguberriak arte mantenduko zizkiotela orain arteko lan-baldintzak, baina hortik aurrera ez zekitela zer gertatuko zen. Beraien ustez zerbitzu publiko bat da eta zerbitzu horren barruan beraien erresponzabilitatea dute, autoen errebisioa da egiten dena eta segurtasun aldetik ere beraien baldintzak behar dituztela esan du.

Enpresak alde ekonomikoari bakarrik begiratzen diola aipatu du.

Langileek mahai gainean jartzen duen proposamenik enpresak ez duela onartzen eta, era berean, enpresak ez duela proposamenik egiten gaineratu du. Langileek daukatena mantentzea eskatzen dutela zehaztu du, ez dutela gauza berririk eskatzen.

Jarraian, Alaitz Aizpuruak mozioak jasotzen dituen puntuak irakurri ditu.

Batzarkideek, mozioa aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“TÜV Rheinland Iberica S.A. derrigorrezko ibilgailuen azterketako zerbitzu publikoen ustiatze emakidaduna da EAEko 8 IATetako 2retan (Urnieta eta Irunen), Eusko Jaurlaritzako Industria sailak 30 urtez 1994/01/01 2023/12/31ra aktibitate honen ustiatzaile errejimenaren esleipena medio. Ibilgailuen azterketa teknikoen zerbitzu publikoan ezarritako kontzesio kontratuko errejimen juridikoan, bertan EAEko Industria zuzendariak zehaztutako lege eta arauak biltzen direlarik, Urnieta eta Iruneko IATetako kontzesiodun TÜV Rheinland Ibericari ezartzen zaizkio zerbitzuaren inguruko xehetasun guztiak, EAEko IATetako langileen baldintza nahiz eskuduntzak zehazten direlarik.

Gipuzkoako IATetako langileen baldintzak zehaztu eta erregulatzen dituen marku legala, Gipuzkoako PRECO “greba amaierako” akordioa da, sei hilabeteetako greba



Usurbilgo Udala



ondoren, TÜV Rheinland Iberica S.A. enpresa kontzesionario eta langile batzordearen artekoa. Bertan langileen lan baldintzen gain, aktibitatearen kudeaketa zuzena eta IAT zerbitzu publiko egokia eskaitzea bermatzen da.

Akordio honen iraupena 2011/12/31an amaitu zen eta enpresaren jarrera orain arte ezkorra izan da akordio hau berri eta eguneratzeari dagokionez, horren ondorio dira langileen geldialdi eta mobilizazioak, egoera desblokeatze aldera protesta moduan.

2012an IATko zerbitzuak 126 egunez izan du honen eragina, eta 2013an, 65 geldialdi egun eta ekainaren 15a ezkerotik orain bitarte 160 egun baina gehiago dira greba egunak, enpresak langileei akordio hau berritzeko aukera ematen ez dielarik.

Gatazkaren ondorioak herritarrentzat beste lurralde batetara joan beharra da IATA egitera, gehiengoa Nafarroara, bertan enpresa kontzesioduna TÜV Rheinland Iberica S.A. delarik Doneztebe, Arbizu eta Berriozar kasu. Horrela gipuzkoar IATko erabiltzaileak bereak diren nafar IATetara joatera behartzen ditu eta bertan ordu luzeetako ilara itxaronaraztera. Beste zenbait gidarik aldiz ez dute IATrik egiten eta Irungo IATak eskaintzen dituen ordu apurren zain gelditzen dira (40 egun batzbeste).

Ondorioz, 65 geldialdi egun eta 159 egun baina gehiagoko greba ondoren eta zerbitzua geldirik edo eskasiaz eskaintzen delarik bi gipuzkoar IAT hauetan 2013an, enpresaren kudeaketa pribatuaren jarrerak bultzaturik, gatazkaren amaiera ekarriko duen akordiora iritsi nahi ez duelarik. Ondorio moduan (kontzesio kontratua ez betetzearen arduraz gain) milaka gipuzkoarren eskubidearen kalte larria (2013an 80.000 baina gehiago izango dira gidari kaltetuak) EAEko administrazioak antolaturiko IAT zentruetara joaterik ez dutelarik.

EAEko administrazioagan kaltea azterketen fakturazioan dagokion kanona jasotzen ez duelarik.

Gipuzkoako foru aldundian kaltea fakturako jasotzen duen BEZaren etorria izango ez duelarik.

Errepideetako segurtasunean ere eragina du hainbait ibilgailu derrigorrezko IAT azterketa ikuskatu gabe dabiltzalako hauen gidariak beste lurralde batera ez joatea erabaki dutelako, administrazioak derrigorrezko tramite hau Gipuzkoan normaltasunez egiteko aukera bermatu behar duelarik.

Hau guztiagatik, IATen kudeaketa EAEko administrazioa Seguritate Industrialeko Sailekoa izaki non kontzesio errejimena enpresa pribatuena den, Eusko Jaurlaritzako industria saileko zuzendariari dagokio IATen zerbitzuei buruzko hitzarmena betetzeko ardura zuzena. Denbora hau guztia igaro ondoren, ez da arrazoizkoa enpresari Gipuzkoako IAT zerbitzuak ez betetzea onartzea, aitzakitzat akordio batekin amaiera eman nahi ez dion gatazka hau erabiliz. Bestalde langileok ez dakigu Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak txostenik baduen, informaziozkoa bada ere, edo administrazioa beharturik dagoen auditoria eta azterketak bertan behera utziak dauden.



Usurbilgo Udala



Urnieta eta Irungo langileak Industriari adierazio diote lehenbailehen adostasun batetara iristeko nahia horrela IAT derrigorrezko zerbitzu publikoa 100%an eskaini ahal dadin baita oraingo marku legalaren berrikuntza egokia burutu dadila. Gatazkaren amaiera berehalakoa izango da enpresak langileek onartuak dituzten eskubideak errespetatzeko borondatea badu. Hau dela eta, Urnieta eta Irungo langileek legezko ordezkariaren bitartez:

Eskatzen dute:

Erakundeen babesa, behar beste mugimendu burutuz Eusko Jaurlaritzara presatzeko:

1.- Beharrezko diren egin ahalak burutu ditzan lehenbailehen TÜV Rheinland Iberica S.A. enpresa kontzesiodunarekiko gatazka konpontzeko non milaka gipuzkoarri eragiten dien.

2.- EAEko gidariei ibilgailuen azterketarako IAT zentrua libreki hautatzeko eskubidea bermatzea honetarako behar diren neurriak hartuz non zerbitzua epe eta modu egokian eskaintzen delarik eta funtzio hauetarako behar beste langilerekin, horrela kalitatezko zerbitzua eskainiko delarik.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Abstentzioa: Luismari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera.

Beraz, mozioa gehiengoz onartua izan da.

**Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:40ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.**